

DATORRENA

Londreseko gazte baten
barrabiletako azkura IÑAKI SOTO > 3

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Altsasukoaren irakasgaiak, argiak
eta gordinak IÑAKI ALTUNA > 11

2019ko martxoaren 23a | XIII. urtea • 613. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



NAFARROAKO TXAPELA JOKOAN

EUSKARAK ETA BERTSOAK ATONDUKO DUTE GAUR IRUÑEKO ANAITASUNA
KIROLDEGIA, NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETAREN FINALA AITZAKIA.
ZORTZI BERTSOLARI ARITUKO DIRA LEHIAN, ELKARREN KONTRA BAINO GEHIAGO,
ELKARREKIN JOSTEN DEN BERTSOAREN LEHIA BEREZI HORRETAN. > 12

Idoia ZABALETA | FOKU

Robot sexualei ohean leku egin eta aukera bat ematearen joera 04

Palestinarren patua, Israelen ekina, nazioartearen ardura 07

Brasilgo oinarritzko elikagaia, askorentzat eskurazina 08

Nafarroako Bertsolari Txapelketako zortzi finalistekin solasean 12

Ekozinemaldia, mundu bizigarriago eta justuago baten aldeko borrokak 22

Sarean 26

In fraganti: Anboto taberna 28

Juantxo Engañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** Londreseko gazte baten barrabiletako azkura
- 10 **Ula Iruretagoiena Busturia:** Lurraldearen kutsadura
- 11 **Iñaki Altuna:** Altsasukoaren irakasgaiak, argiak eta gordinak
- 20 **Beñat Gaztelumendi:** Tartean
- 21 **Amaia Nausia Pimoulier:** Sorginen memoria
- 24 **Koldo Sagasti:** Jauntxoaren ahulgunea
- 24 **Itzea Urkizu Arsuaga:** Ile batzuen baitan
- 25 **EXPRAI**
- 30 **Amaia Urrejola:** Greba feministaren inguruan hausnartzen



{ datorrena } Iñaki Soto

Londreseko gazte baten barrabiletako azkura

Liam Young gazte britainiarrak idatzi duen “Rise. How Jeremy Corbyn Inspired the Young to Create a New Socialism” liburuaren irakurketak gogoetara bultzatu nau. Testuingurua aproposa da. Alde batetik, Brexitaren prozesua dago; bestetik, hauteskunde zikloan sartu gara; eta, azkenik, Gazte Topagunea ere hortxe dago. Bide batez, “sozialismo berria” deitzen den horri buruzko eztabaida geroz eta hedatuagoa dago, batez ere mundu anglosaxoian. Liburuan Bernie Sandersen kanpainaren eragina aipatzen da, adibidez.

Young 21 urteko militantea da. Alderdi Laboristaz gain, sindikatu bateko eta Momentum mugimenduko partaide ere bada. Gaur egun, Westminsterreko diputatu baten aholkulari gisa lan egiten du. Youngen idazkera bizia da, pixka bat errepikakorra, baina indartsua. Bere bizipenak eta hausnarketa propioak Corbynen inguruan sortu den mugimenduko gazteen testigantzekin osatzen ditu. 4.000 gazteri 15 galderako galdetegia bidali zien eta hortik hartutako testigantzak dira. Zentzu horretan, adinagatik Corbynen alde bozkatu ezin izan zuten baina bere alde kanpaina egin zutenen iritziak azpimarragarriak iruditu zaizkit.

Millennial delakoen kintakoa da Young, eta horri egozten zaizkion ezaugarrietatik asko betetzen ditu. Zenbaitetan adanismoan erortzen da, adibidez. Politikari tradizionalen eta *establishment*-aren paternalismoa gogor salatzen ditu, zuzen eta garbi. Bere ustez, Corbynek hor markatu du aldea: galdetu eta entzun egin die, alegia, gazteak kontuan hartu ditu.

Young anbizio handiko pertsona da, ez du ezkututzen. Eta politika bere bizitzako pasioa da. 9 urte zituela Tony Blair ezagutu zuen, eta honek handitan zer izan nahi zuen galdetu zionean, Youngek «lehen ministro» erantzun zion. Liburua anekdota horrekin abiatzen da. Han-

tustea dirudi; eta da, zalantzarik gabe. Edonola ere, *millennial* delakoek duten lotsagabekeriaren, zintzotasunaren eta harrokeriaren nahasketa kontuan hartzeko zer-bait dela iruditzen zait. Onerako eta txarrerako.

Corbyn fenomenoaz harago, “Rise”-n gazteen agenda moduko bat markatzen da. Euskal gazteenaren desberdina da, jakina, baina horrexegatik ere bada interesgarria. Parte hartze politikoaren auzian, gazteek politikan eragiteko duten gaitasuna nabarmentzen du. Besteak beste, bozkatzeko adina 16 urtera jaisteko ideiarekin bat egiten du. Osasun mentalaren gaiaren garrantzia aipatzen du, Britainia Handian alor horretan krisia baitago, eta austeritate politikek arazoa larriagotu dutelako. Brexitaren auzian balioen inguruko eztabaidaren garrantzia azpimarratzen du. Klima aldaketa dela-eta gazteek duten

Politikari tradizionalen eta «establishment»-aren paternalismoa gogor salatzen ditu. Youngen ustez, Corbynek hor markatu du aldea: galdetu eta entzun egin die; gazteak kontuan hartu ditu

kezka ere azaltzen da. Hango gazteentzat etxebizitzaren auzia zentrala da eta Youngek politika publikoetan jartzen du indarra. Lan erreformek lan baldintzak nola kalte-tu dituzten eta horren ondorioz desberdinkeria nola handitu den azaltzen du. Bankuen erreskatea gogor salatzen du, eta “Gazte plan” batek izango lituzkeen kostuekin alderatu. Hutsuneen artean, feminismoak duen garrantziari buruzko azterketa bota dut faltan.

La Pollak zioen –dioen?– bezala, «*si en Londres les pica un huevo / Aquí todo el mundo se rasca*». Evaristoren ustez, ergelen kezka ziren horiek. Liburu honek, ordea, azkuron erreflexua identifikatzeko balio dezake. Badakizue, Putney Bridge izkinaren bueltan dago. •

ROBOTEKIN LARRUTAN

Indartzen ari den joera da robot sexualei ohean leku egin eta aukera bat ematearena

TEKNOLOGIA / Mikel Zubimendi Berastegi

Euskal Herria, 30 urte aurrera egin eta 2050. urtean kokatzen da hausnarketarako hipotesi hau. Jadanik AEBetan, Britainia Handian, Japonian edo Hego Korean gertatzen den bezala, debeku orokor bat ematen ez bada behintzat, gure herriko denda espezializatueta ere ohikoak izango dira robot sexualak. Egun eredu oinarritzkoenak 10.000 dolarreko prezioan eros daitezkeenez, agian merkeagoak izango dira Euskal Herrira iritsitakoan. “Emakumeak baino hobeak” lelodun iragarkiekin saltzen dira, eta, gainera, erosi aurretik probatzeko aukera ere ematen dute!

Izugarri saltzen ari dira, 15.000 milioi dolarretako negozio bat osatzeraino. Urtetik urtera handitzen doa fenomeno, normalizatzen ari da merkaturak, eta Euskal Herria ez da salbuespena izango. Baina iritsiko al da euskaldunek beren sexu harremanetarako pertsonak baino robotak nahiago izango duten eguna?

Alemanianko Duisburgeko Unibertsitateak egindako ikerketa batek erakusten duenaren arabera, bertako gizonen %40 prest daude robot sexualei beren oheetan leku egin eta aukera bat emateko. Alemanianko gizon heterosexualek ia erdiek beren buruak robot sexualekin txortan irudikatzen dituzten bezala, etorkizun hurbileko gizon euskaldunek berdina egingo al dute? Eta emakumeek?

Litekeena da, bai. Gaur egun, panpina eta robot sexualen merkatu datuek adierazten dutenez, saltzen diren modeloen artean %95ek emakumeak irudikatzen dituzte. Gizonen modeloak ez dira %5era

Bihotz taupadak dituzte eta badakite hitz egiten, laztantzerakoan epeltasuna darie, izan lotsati ala basati, programatutako «nortasun» bat badute. Hemen dira eta geratzeko etorri dira: adimen artifizialdun robot sexualak dira. Beren hazkunde ikaragarriak, baina, inplikazio sakon eta arriskutsuak ditu. Asko dago jokoan.

iristen. Haurrak irudikatzen dituzten robot sexualak, berriaz, debekatuta daude. Bai, merkaturak oso azkar ari da hazten eta gero eta sofistikatuagoak dira robotok. Hortaz, gizonak beren desirak asetzeko lagun min berriak dituzte es-

Robot sexualena ikaragarri hazi, sofistikatu eta normaldu den negozioa da. GAUR8

kura, aukeran, adimen artifizialdun silikona zati hiztunak.


«NORTASUN» HIPERERREALISTA

Baina galdetzekoa ere bada: zergatik dira hain erakargarriak gizon heterosexualentzat, egun alemaniarrek izan

ala bihar euskaldunak, autonomia eta erabakimenik gabeko “bikotekideok”?

Panpina sexual modernoak asko aldatu eta garatu dira eta askoz gehiago aldatuko dira. Jostailu sexualak aspaldidanik erabil daitezke bikoteen sexu jolasetan edo nor bere buruarekin jolasteko alternatiba bezala. Roboton defendatzaileak sarri erabiltzen dute bibragailuen argudioa. Hots, emakumezkoek bibragailu bat izan badezakete, zergatik ez dute gizonezkoek robot sexual bat izango? Baina ez, ez dira gauza bera.

Silikonazko azala duten robot sexualok gero eta aurrera- tuagoak eta sofistikatuagoak dira: laztantzerakoan, ukitzerakoan epelak dira, bihotz tau-



padak dituzte, hitz egiterakoan gizakien antzeko erantzunak ematen dituzte. Eta, gainera, pertsonalizatu ere egin daitezke, nahi den begi eta azazkal kolorea aukeratuz, nahi den ahots tonu, titiburu forma edo aho zirkunferentzia emanez. Asaldagarri egiteraino pertsonaliza daitezke, «nortasun» hipererrealista emateraino, nahieran: neska lotsatia eta esanekoa nahi duzun, edo basatia nahiago duzun aukera dezakezu. Bezeroak nahi duen gisa prestatutako diote robota.

ESKLABO ATSEGINGARRI

Baina ez, robot sexualok ez dira eta ez dira izango fetix soil, ez dira beste jostailu sexualen pareko. Beren etorrerak eta izango duten sofistikazio geldiezinak gure kulturen ilunagoa eta sakonagoa den zerbait nabarmentzen dute: generoen arteko berdintasun idealarekiko urruntzea eta emakumea menderatzea aukera edo gehigarri bezala eskaintzen duen sexu ereduarekiko gerturatzea.

Roboton «nortasun pertsonalizatuek» ez dituzte egiazko emakumeenak ordezkatzeko. Robotok ez dute «bikotekidearekin» harremana moztzen. Ez dute ez xederik ezta historia pertsonalik ere. Ez dute independentzia eta borondate librerik: erabateko menpekotasunezko fantasia hutsa dira.

Robot sexuala pasiboa da, jabea sexualki eszitatzen den aldiro dago erabilgarri. Jabeak ez du heldutasun emozionalik behar, ezta emakume errealekin izan beharko lukeen sentsibilitaterik ere. Ez du robotaren emozioen aurrean erne eta adeitsu azaldu beharrik. Helburu bakarra du robotak: jabearen sexu gosea asetzeko. Robotekin sexua emoziorik



Erosleek erabat pertsonaliza dezakete robota, «nortasun» eta itxura hipererrealista emanez.
GAUR8

gabea da. Abusua onargarri egiten duen sexua, errurik gabea. Azken buruan, adimen artifizialdun eta silikonazko «emakume» hipererrealistok esklabo atsegingarriak baino ez dira. Dontzeila itxurakoak, porno izarren proportzioekin, baina esklaboak.

EMAKUMEA JOSTAILU

Sexu jostailuak aspaldikoak diren arren, robot sexualok emakumeak jostailu gisa irudikatzen dituzte, menpeko, gizonezkoen nahien betetzailerik. Emakume errealek itxura handiagokoak dira: beren kabuz berotzen diren ereduak jada merkatuan dira, hitz egin edo poemak errezitatzeko programatuak, edo felazioak egiteko... Pentsa, bihotz taupadak ere badituzte eta jabeekin «ligatzen» dute... Eta gauzak argi: erabakiak hartzea ezinezko duten autonomiarik gabeko «emakume» errealek irudikatzen ari diren heinean, robo-

tok sexurako arimarik gabeko lagungarri edo osagarriak baino zerbait gehiago dira.

Jendearentzat agian ez dira izango berehalako kezka, urrutiko geratzen den kontu bat izango da akaso. Baina inplikazio asko daude jokoan. Eta horien artean inportanteena, emakumeekin harreman sexualak izatea kontu erraza eta pasiboa izan beharko litzatekeen ideia indartzearena. Alegia, emakumeak ez duela bere bo-

rondate, zaletasun sexual, al-darte eta gisakoekin «arazorik» sortu behar, eta, hori «konpontzeko», zer hobe «emakumea» sexu objektu bihurtzea baino.

Beste inplikazio ilun eta guztiz asaldagarria ere bada tartean: pasibo eta hauskorren diren pertsonak –umeak, edadetuak, abusuak jasan dituzten emakumeak, desgaitasun mentalak dituztenak...– jomuga apropos bihurtzen ditu, «helburu» erraz. Lotsarekiko edo zuzentasun moralarekiko lotura guztiak hautsi dituzten gizonezkoen kapritxo sexualak asetzeko espresuki diseinutako robotekin gertatzen den bezala.

Ironia betean bizi gara, teknologikoki gero eta garatuago eta harremanetan gero eta isolatuago, atomizatuago, barkatuago. Norbaitekin harremanetan jartzeko edo egoteko sekula ez bezalako aukerak daude (posta elektronikoa, sare sozialak, bideo bidezko ko-

Roboton «nortasun pertsonalizatuek» ez dituzte egiazko emakumeak irudikatzen. Ez dute nahirik, ez dute historia pertsonalik, ez dute independentzia eta borondate librerik

Robotok beren kabuz berotzen dira, bihotz taupadak dituzte, poemak errezitatzen eta jabeekin «ligatzen» dute. Arimarik gabeko osagarri sexualak baino zerbait gehiago dira



Gaur egun, adimen artifizial eta silikonazko roboten merkatuaren %95 emakume itxurako robotek osatzen dute. GAUR8

munikazioak...), baina, psikologoek sarri ohartarazten duten bezala, inoiz eman gabeko bakardade mailak, gizakien arteko deskonexioak, ezagutzen ari gara. Belaunaldi berriene-tako kideek gero eta gutxiago dakite nola jokatu behar duten gainontzekoekin, nola sor ditzaketen lagunarteko harremanak, harreman afektiboak; bien bitartean, adimen artifizialak sortutako mundu bertualean gero eta harrapatuago, galduago daude.

HIPOTESI BELDURGARRIAK

Denbora gutxi barru, logikoa izango al da aitona batek, adibidez, robot batekiko estimu handiagoa izatea ikusten ez dituen semeekiko baino? Ditu-tzen behar zehatzak asetze-ko programatutako ohekide sintetikoekin harreman sexualak izatera ohituko balira gizonak, nola jokatu-ko lukete borondate libre-a eta berezko nortasun bakar eta errepikaezina duten emakumeekin?

Robotak orgasmo bat emateko baino, laguna, bikotekidea ordezkatzeko diseinatuta dau-de. Bibragailu batek ez zaitu zure urtebetetze egunean zoriontzen, ez du zure txistee-kin

barre egiten; robot sexualen modelo berriek, bai, ordea. Bizidunak eta hipererrealistak diruditen robotekin nonahi, nahi beste eta nahieran harreman sexualak izan ondoren, emakume errealekin domina-zio handiagoko egoerak espe-ro al daitezke?

Oso beldurgarriak diren kontuak ari dira gertatzen. Hong Kongetik heldutako berriak robot sexualen konpainia batek Scarlett Johansson aktorearen erreplika zehatza ekoiztu duela dio. Johansson informatzeke, are inongo bai-menik eskatzeke.

Eta hari beretik tiraka, imajinatu orain hipotesi mingarri hau. Imajinatu neskak utzi berri duen mutil lagun ohiak neskaren begi, ilea, garaiera

Gizonak beren desirak asetzeko programatutako ohekide sintetikoekin harreman sexualak izatera ohitzen badira, nola jokatu-ko dute borondate libreko emakumeekin?

Dena aldatzen doa eta agian adimen artifizialak gurea gainditu eta bere esklabo bihurtuko gaitu. Agian iritsiko da robotek beren mendekua hartuko duten eguna



eta ahots bereko robot bat erosten duela. Eta fantasia kriminalak dituelako robota egu-nero jipoitzen duela. Ez al da asaldagarria?

TANTAZ TANTA, UHOLDE

Bortxatzeko, masturbatzeko, desira bitxienak gauzatzeko aukera ematen duten robotak sexu jostailu gisa ari dira psikologia kolektiboan sartzen, tantaz-tanta. Dударik ez egin, baina, atzean dagoen asmoa uholde bilakatzea dela, azke-nean gizakien artekoa ez den sexu jolasa normala, merka-tuaren baitako beste aukera bat bilakatzeke.

Kezka adierazten ez duten roboton defendatzaileen argu-dioetan horrelakoak aditzen dira: desgaitasun funtzionalak dituztenentzat, presoentzat edo zaharren egoitzetan dau-denentzat alternatiba bat izan daitezke. Are, robot sexu-alek bortxaketak gutxitu ditzakete-la esan eta idatzi dute, «emakumeak ez direnez, robotak di-renez, sexurako onespena behar ez denez...». Ideia hori, baina, okerra da oso. Hasteko, emakumeen kontrako gizonen biolentzia berezkoa eta ekidi-nezina dela aditzera ematen

duelako, hots, asko jota, prebe-nitu edo konpondu baino, soi-lik arindu egin daitekeen zer-bait.

Ez, bortxaketa ez da pasio sexualesko ekintza, krimena da, botere harremanetan oina-rritutako krimen biolentoa. Nola bultzatuko ditugu bor-txatzaileak emakume erreale-n itxurako robotekin aritzera? Horrek ez duela axola? Pede-rastentzat jostailu bihur dai-tezkeelakoan haur itxurako robot sexualak debekatu badi-ra, zergatik ez emakume itxu-rakoak? Ez direlako emakume, makina baizik? Bibragailuak dauden bezala robotak egote-ko inongo arazorik ez dagoela-ko? Debekua etikoki zalantza-garria izango litzatekeelako, ia-ia fotokopiagailu bat foto-kopiak ez egitera behartzea be-zalakoa? Mesedez!

Robotekin bistan da adimen artifizialaren eta gizakien arte-ko harremana betiko aldatuko dela. Agian adimen artifizialak gurea gaindituko du eta bere esklabo bihurtuko gaitu. Agian robotek beren mende-kua hartuko duten eguna iri-tsiko da, bai. Eta hipotesi ho-rrek ere izugarri beldurtzen du, bai horixe!



SAID KHATIB | AFP



IKUSMIRA

PALESTINARREN PATUA, ISRAELEN EKINA, NAZIOARTEAREN ARDURA

la guztiz isilean igaro den arren, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) gogor salatu du iragan astean Gazan palestinar errefuxiatuen itzuleraren alde lehen urtea bete zuen ekimenaren aurkako Israelgo Armadaren erreprezio bortitza. 2018. urteko martxoaren 30etik astero

biltzen dira muga milaka palestinar, errefuxiatuek etxera bueltatzeko duten eskubidea aldarrikatzeko eta Israeliek Gazaren aurka mantentzen duen blokeoa salatzeko. Israelgo soldaduek 189 palestinar erail eta 10.000 inguru zauritu dituzte dagoeneko. Hildakoen artetik 35 harresitik urrun palestinar ikurra eskutan hartuta zeuden haurrak ziren, eta gehienak buruan jazotako tiroen ondorioz hil dira. Zauritutakoen artean askok anputazioak pairatu dituzte eta elbarri gelditu dira. NBEk Palestinan duen Michael Lynk ordezkariak azaldu duenez, Israeliek krimenok ikertzen ez dituenek, nazioarteak hartu beharko du ardura hori. «Ordua da behingoz Israelen inpunitatearekin amaitzen hasteko». Dabid LAZKANOITURBURU

LUXUZKO BABARRUNAK

Brasilgo oinarrizko elikagaia eskurazina bihurtu da askorentzat prezioa tarteko

📁 ATZERRIA / EFE

Brasildarrek gustuko duen elikagaia-
ren prezioa laukoiztu egin da azken hilabeteotan eta ia lortezina bihurtu da kontsumitzaile askorentzat. Orain bestelako aukerak bilatzen dituzte plater kutunena ordezkatzeko.

Brasildar bakoitzak, batez beste, 15 kilo babarrun jaten ditu urtean. Arrozarekin batera, Hego Amerikako herriko dietan produktu izarra da. *Feijão* edo “babarruna”, gainera, *feijoada* izeneko plater tipikoaren osagai nagusia da. Askotariko txerri eta behi haragi zatiak ere osagai dituen platera da, zalantzarik gabe, Brasilgo sukaldaritzako izarretako bat. Tradizioaren arabera, *feijoada* Afrikatik Brasilerara eramandako esklaboek sortu zuten, babarrunak haien jabeek albora uzten zituzten hain “nobleak” ez ziren haragi zatiekin prestatzean. Baina gaur egun, mendeak igaro ondoren, edozein klase sozialeko milioika brasildarren asteko menuaren ezinbesteko zati da.

Montecarlo tabernan, Sao Pauloko finantza gunen nagusietarikoa den Paulista etorbide ikonikotik metro gutxira, asteazkenero eta larunbatero ehun *feijoada* baino gehiago zerbitzatzen dituzte. Baina eltzeko ospetsua, tabernako diru iturri nagusietarikoa, zama handia izaten hasi da jabeentzat, babarrunaren garestitzearen erruz. Pentsa, azken hilabeteotan %200 baino gehiago igo da babarrunaren prezioa.

«Oraingoz, *feijoada* prezio berean mantendu dugu. Gure plater nagusia da eta horregatik eusten diogu, bezero kopuruan eraginik ez izateko»,

Ameriketako beste herrialde askotan bezala, babarruna oinarrizko elikagaia da brasildarrentzat, batez ere pobreenentzat. Azken hilabeteotan, berriz, ordezko jakien bila dabilta asko, prezioak nabarmen igo direlako.



adierazi du Ronilce Matos Montecarlo jatetxeko jabeak.

Matosek bezala, Alice Boreli erretiratuak ere uste du babarrunaren prezio igoera «zentzugabea» dela eta dagoeneko bere elikagai maitatuaren ordezkoa ere aurkitu behar izan du: dilistak. Ez da harritzekoa, gastronomia brasildararen produktu izarrak 3,5 erreal (0,9 dolar) balio baitzituen azaroan, eta, otsailean, 12 errealekoa (3,24 dolar) baitzen jada prezioa, Ibrafe Brasilgo Feijão Institutuaren arabera.

Hori bai, prezio igoerak ez dio babarrunari soilik eragin. «Supermerkatuko produktu guztiak dira garestiak. Babarruna, arroza, azukrea... prezio denak ari dira igotzen», azaldu du kezkatuta du Borelik.

LANDATZEKO SAIL GUTXIAGO

Babarrunaren kasuan, prezio igoera uzta txar baten ondoren etorri da. Batez ere *carioca* motako babarrunaren prezioa igo da, hau da, Brasilen gehien kontsumitzen dena. Horrekin batera beste babarrun mota batzuk ere badaude, *fradinhoi*, *feijao de corda* edo *preto* (“beltza”) kasu.

Marcelo Lüders Ibrafe institutuko presidentearen arabera, ekoizleek iaz *carioca* babarrun sailak gutxitzea erabaki zuten, ekonomikoki errentagarriak izango zitzaizkien beste produktu batzuk landatzeko, soja adibidez. Horrez gain, iazko azken hilabeteetan Brasilgo eskualde ekoizleetan izandako lehorteak ere babarrunaren prezioaren gorakada areagotu du, sikateak eskaintza are gehiago murriztu baitu.

«Eskasiak bat-bateko prezio igoera sortu ohi du, baina ez da asko luzatzen, hiru babarrun uzta ditugulako urtean», adierazi dio EFE agentziari An-



OINARRIZKO ALEAK, BABESTUTA MEXIKON

Oinarrizko aleek –babarruna, artoa, arroza...– gutxieneko prezioa izango dute Mexikon, nekazariak bermatutako ordaina jasotzen dutela ziurtatzeko. Andres Manuel Lopez Obrador lehendakariak aurkeztutako egitasmoak atzerriko erosketak murrizteko asmoa du. Argi mintzatu da Obrador: «Mendeak daramatza artoak Mexikoko herria elikatzen, baina, egun, teknokrata ustelen erruz, Mexiko da atzerrian arto gehien erosten duen herria!». Lehendakariaren ustez, hori «nahigabea, paradoxa eta kontraesana» da, artoa Mexikon sortu zen-eta. «Babarrunaren prezioa bermatuta dago eta ekoizpena igoko dugu, atzerrian gehiago ez erosteko. Asko landatzen da Zacatecasen, Nayariten, Durangon, Chihuahuan, Sinaloan... baina ez dugu oraindik aski ekoizten, kontsumitzen dugunaren %10 erosi egiten dugu oraindik». Kontsumitzen duen arrozaren %85 eta gariaren %70 ere atzerrian erosten du Mexikok. «Kontsumitzen duguna Mexikon ekoiztea, hori da bermatutako prezioen helburua». Ildo horretan, AEBetan nekazariak oso babestuta daudela gogoratu du Obradorrek: Estatuak, kreditu eta laguntza ugari emateaz gain, ekoizpen kostuaren %80a arte ordaintzen die.

dre Brazek, Getulio Vargas Fundazioko Kontsumo Prezioen Indizearen koordinatzaileak. Apiriletik aurrera prezio jaitsiera espero du: «Ekoizpen nazionalaren %60 den *carioca* motako babarrunaren 60 kilo-ko zakuaren prezioa 400 erreal (108 dolar) izatera iritsi zen otsailean. Iazko hilabete berean zakuak 120 erreal (32,4 dolar) balio zituen».

Babarrunaren eta beste elikagaien prezio igoerak urtarri-leko inflazioa %0,32koa izatea eragin zuten, 2018ko abenduan %0,15koa izan ondoren. 2018ko urtarillarekin alderatuta, %3,78ko igoera izan zuten prezioek, Brasilgo Gobernuaren aurreikuspenen azpitik geratuz (%4,25). «Babarrunak urtarri-leko inflazioa handitu

Alboko orrialdeko argazkian eta goikoan, Brasilgo emakumeak sukaldean.
Daniel PIMENTEL | AFP

zuen, baina otsailekoan are eragin handiagoa izango du. Hala ere, Brasilgo inflazioa oso baxua da, ekonomiak geldo jarraitzen duelako: langabezi tasa altua da, eta, kontsumoa, baxua», aurreikusi zuen Brazek otsail hasieran. Eta asmatu egin zuen, otsaileko inflazioa %0,5koa izan zelako, %3,9 igoz 2018ko otsailetik.

Brazen esanetan, prezio igoerak pobreak kaltetu ditu batez ere, babarruna Brasilen errenta gutxiko pertsonen «elikadura osagai nagusia» delako. «Pobreak arroza eta babarruna baino ez du jaten. Zer egingo dugu prezio hauekin!», salatu du emakume batek Sao Pauloko merkatu batean, adi-tuaren iritzia berretsiz.

Ekoizleek iaz babarrun sailak gutxitzea erabaki zuten, ekonomikoki errentagarriagoak izango zitzaizkien beste produktu batzak landatzeko, soja adibidez

Babarruna brasildar ororen menuan badago ere, prezio igoerak pobreak kaltetu ditu batez ere. Izan ere, errenta gutxiko brasildarren elikadura osagai nagusia da arrozarekin batera



Ula Iruretaghoiena Busturia - @ulissima5
Arkitektoa

Lurraldearen kutsadura

O sasunarekin harremanean diren bi berri itzaturik gelditu zaizkit –eta ez, ez dute Jaurlearitzako Osasun sailburuaren kargu uztearekin loturarik– eta batak eta besteak sortutako zurrunbiloetatik argudio bat harilkatzen saiatuko naiz. Batak dio, Bartzelonako Ciutat Vellako hirigunearen aire kalitateak 2018. urtean 354 biztanle hil dituela, eta beste hainbeste gaixo utzi dituela. Trafiko istripuen arriskuak ongi sozializaturik dauden bitartean –konparatzerako, iaz 165 heriotza sortarazi zituzten Bartzelonako hirian–, aire kutsadurak eragindakoen datua isilpean gelditzen da oraindik –ikusgarritasun faltagatik seguru aski–. Aire kutsadura larriagoa da hirigune katalanaren kasuan, autoen trafiko zoroari gaineratzen zaizkiolako kokapen geografikoaren eragina –mendikateak mugatua eta kateatua– eta goraldian dagoen portuaren aktibitatea –turismo-ferryren trafiko igoera–. Kutsadura atmosferikoak ez ditu mugak ezagutzen eta ez du gorputz bereizketarik egiten, izan bankari edo *souvenir* saltzaile.

Bigarren berriak dio, munduko errenta altuko biztanleriaren bizi-ohituren kontsumoak eragiten duen aztarna ekologikoa errenta baxukoena baino nabarmen altuagoa dela. Munduko biztanleriaren %10ak sortzen omen du kontsumo ohiturek sortarazitako munduko CO₂ igorpenen %49. Gutxi batzuek Planeta asko zikintzen dute eta beraz gutxi batzuen ohitura aldaketek eraginkortasuna izango lukete mundu mailan, ohiturok aldatzekotan. Kutsadura-

ren aurrean erantzukizun indibidualak zerrendatzekotan bagina, kapital handiko norbanakoek ardura gehiago luke te gainontzekoek baino. Ematen baitu urrezko txartela poltsikoratzeak berekin dakarrela xahutzean oinarrituriko bizimodu ohiturak praktikatzea eta kutsatzeko eskubide edo legitimazioa eskuratzea. Jet pribatuan mugitzea, lurralde zati handiak familia bakar baten bizitoki bihurtzea, golf zelai partikularra izatea... Paradoxikoa dirudi guztiz lizunak diren eta zikintasuna sortzen duten ohiturok luxu gisa gizarteratu ohi direla, langileontzat eskuragarri ez den bizimodu baten ikur. Bizimodu ohituron funtsa indibidualtasunean eta pribatizazioan oinarritzen da –kapitalismoaren biblia–, eta ohiturok kolektiboki konpartitzen dugun atmosferaren poluzioaren gainetik jartzen dira.

Kutsadura atmosferikoaren erruz egin daitekeen osasun-arriskuen mapak gizarte-klaserik gabekoa ematen duen arren, ez da klase irakurketatik aldendu behar. Lurraldearen ezaugarri fisikoak homogeneousak ez direnez gero, arriskuak ez du berdin eragiten lurraldearen guneez guztietan, eta, beraz, arrisku-maila ezberdinak ematen dira. Eta pribilegiadun esparruok salgai jartzeko aukera dagoen unetik, kutsadura eta osasun mapak ez du berdin eragingo bankariarengan edo *souvenir* saltzailearengan. Eta automatikoki, ikusgai ez den arrisku baten mapifikazio hutsa botere-tresna bilakatzen da, ezberdintasunak kontrolatzeko espazio berriak sortzen direlako. •



Ilustrazioa: Ula IRURETAGOIENA

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Altsasukoaren irakasgaiak, argiak eta gordinak

Altsasuko kaleak lepo beteko dira bihar. Izugarria izango da manifestazioa, ez dago horretan duda izpirik ere. Sortu den giroak ez du besterik iragartzen. Eta horrek lehen balorazio kuantitatibo bat dakar berarekin. Oso esanguratsua izan da urteotan, ekimen ezberdinetan, Altsasuko gazteek jasandako bidegabekeriak mobilizatu duen jende andana. Gaiak sortu duen sentsibilizazio mailaren adierazle. Belau-naldi berriak ere gehitu dira protestara.

Gai honek ez ezik, urteotan beste zenbait aldarrikapenek ere eragin dituzten mobilizazio handiek azterketa merezi dute. Euskal preso politikoen eskubideen defentsak, mugimendu feministak, Gure Esku Dago-ren giza-kateek edota erretreta duinen alde pentsiodunek abiatutako dinamikek inoiz Euskal Herrian izandako mobilizaziorik handienak ekarri dituzte azken zazpi urteotan. 2012ko urtarilean 100.000tik gora lagun bildu ziren Bilbon euskal preso politikoen alde, ETak borroka armatuaren amaiera iragarri eta hiru hilabete eskasera. Orduz geroritik, tamaina handiko mobilizazio ugari egon da, modu jarraituan. Eta nahiz eta estatuek entzungor egin dioten protesta horiek salatzen zituzten eta dituzten arazoen konponbideari, mobilizazio gaitasunak ez du behera egin, bihar bertan Altsasun ikusi ahalko denez. Seguru asko, Europa osoan ez dago parekorik, Katalunian ez bada, jakina, bertako prozesu independentistak herri mobilizazio masiboa sortu baitu, hori bai parekorik gabekoa.

Askotan pasatutako garaia aipatzen dira nolabaiteko nostalgiaz, baina, zenbakiei begiratuta, ezin daiteke esan euskal herritarrek lozorroan direnik, eremu honetan bederen. Beste kontu bat da horrekin denarekin bide orri bat marrazteko egon daitezkeen arazo eta gabezia, Euskal Herriaren erronka nagusietan aldaketak eta lorpenak eskuratzeko osatu beharreko bide

orria, hain zuzen. Piezak izan badirela, baina pieza horiekin puzzlea osatzeko zailtasunak daudela ondorioztatu beharko dugu.

POLIZIA INDARRAK ETA SALBUESPEN EGOERA

Altsasukoak beste zenbait gai eta errealitate ere mahai-ratzen ditu; esate baterako, polizia indarren presentziak Euskal Herrian izan dituen eta oraindik ere badi-tuen ondorio lazgarriak. Okupazio indartzat dituzte herritar askok eta beste askok ere bat egiten dute presentzia hori asko edo erabat murriztea eskatzen duten aldarrikapenekin. Bai Altsasun gau hartan gertatuta-koak bai gau hartatik hona gertatutakoek gordinki azal-tzen dute Guardia Zibilak ez diola bizikidetzari ezer onik ekartzen.

Gau hartakoa ez zen liskar huts bat izan, izaera politikoa zuen, indar armatu arrotzek horrelakoak sortzen baitituzte preseski gatazka politikoetan

Eta, jakina, hamarkadatan Euskal Herriari, modu eta era ezberdinetan, inposatu zaion salbuespen egoera eta eskubide zibil zein politikoen jazarpena ere argi be-zain gordin erakusten du Altsasuko gazteek pairatuta-koak. Legeri eta auzitegi bereziak, babesik gabeko pro-zeduretan. Euskal Herrian gertatu zelako, taberna zuloko liskar bat «terrorismo» ekintzatzat jo zuten, eta horrek sufrikarioa baino ez du ekarri. Horregatik ere esan behar da gau hartakoa ez zela liskar huts bat izan, izaera politikoa zuela, indar armatu arrotzek horrela-koak sortzen baitituzte preseski gatazka politikoetan.

Altsasukoak, azken batean, irakasgai politiko handia uzten du. Euskal Herrian bakerik eta askatasunik eza-gutuko bada, beren nagusitasuna bortizkeriaz inposa-tzen duten estatuetatik deslotu beharko dela. •

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Euskalgintzaren eta bertsogintzaren gailur berri bat Anaitasunan

📁 **TESTUAK:** Amagoia Mujika Telleria eta Maider Iantzi Goienetxe

📷 **ARGAZKIAK:** Idoia ZABALETA | FOKU

Anaitasuna kiroldegia prest. Bertan arituko diren zortzi bertsolariak, berdin. Nafarroako Txapelketak bere 44. finala josiko du gaur, 17:00etatik aurrera. Onenak irabaz dezala festaz jantzitako bat-bateko lehian. Bizia eta estua begitantzen da.

«Beteranoak sendo ikusten ditut eta gazteak suziri bat bezala datoz»

XABIER TERREROS GARTZIA

Lesaka, 1981. Bortzirietako Bertso Eskolan hasi zen haurra zela. Bertan trebatu zen. Urte batzuk bertso mundutik aparte eman ondoren, Iruñeko Bertso Eskolara hurbildu zen hasieran eta Lekunberrikoan segitu zuen bidea gero. Gaurkoa, seigarren finala du. Txapelketan normalean gozatu egiten du sufritu baino gehiago, bertsolari sentitzen den oholtza bakarretakoa omen delako.

Etxarri Aranazko finalaurrekoa irabazita iritsi zara finalera. Iristeko modu polita da.

Bai, gustura nago aurretik egindako lanarekin. Etxarri Aranazko saioan oso ondo sentitu nintzen orokorrean.

Aita izan berri zara. Aita izan berritan txapela jantzi dutenak bat baino gehiago izan dira.

Baina horretarako lehendabizi txapela irabazteko gogoia izan behar da. Nik uste dut denok ez dugula txapela irabazteko gogo bera.

Zuk zein gogo daukazu?

Nik momentu hori gozatzeko gogoia daukat, oholtzako lagunekin eta oholtzatik kanpoko lagunekin. Badakit topiko handi bat dela, baina nik batez ere hori da nahi dudana. Txapelak momentuko poz hori dauka, baina baita

urte osoko zama ere eta nik ez dakit batzuentzat gustagarria izan daitekeen zama hori eramateko prest nagoen.

Oholtzan gozatzen eta sufritzen sumatzen da bertsolaria. Zuk, normalean, gozamenetik gertuago dirudizu kantuan ari zarenean.

Nik txapelketan izena eman aurretik egiten dudan ariketa izaten da ongi pentsatzea ea zein helbururekin noan txapelketara. Entrenamenduko uneak bizitzea, oholtzako momentuak gozatzea... Hor saiatzen naiz kokatzen nire helburuak, nik horietan topatzen baitut txapelketaren zentzua. Nire kasuan, gainera, txapelketa da bertsotan egiteko dudan aukera ia-ia bakarra. Bertsoak niri plazera ematen dit eta horretarako dudan bide bakarretakoa txapelketa da.

Txapelketa da zure aukera bakarretakoa. Horrela nahi duzulako edo horrela gertatzen delako?

Batetik, denontzat nahi adina plaza ez daudelako. Normala denez, herri batetik bertso saioa prestatzen dutenean bertsolari gustukoenak, onenak edo modakoenak deitzen dituzte. Eta, bestetik, bertsolari izatea ofizio gogorra delako. Askotan gertatzen da auskalo nongo herritara desordutan joan beharra. Eta ni



horretan nahiko selektiboa naiz; etxe ondoko saioetara gustura joaten naiz, baina urrunagokoak sortzen direnean –askotan ez da izaten, hala ere–, askotan uko egin izan diet.

Bertsolari sentitzeko aukera ematen dizu txapelketak.

Ez dakit bertsolari sentitzen naizen edo ez, baina txapelketa garaietan, behintzat, bai. Eta Nafarroan dugun talde eder-eder horren parte sentitzen naiz eta horrek niri sekulako ekarpena egiten dit.

Nola ikusten duzu finaleko zortzikotea?

Ikusten dut zortzikote hagitz indartsua. Azken urtetako mailarik onenarekin ikusten dut Nafarroako bertsogintza eta inoiz baino garestiago egon da finalean sartzea. Beteranoak sendo

ikusten ditut eta gazteak suziri bat bezala datozela iruditzen zait. Talka eder-eder bat ikusteko aukera aunitz ikusten ditut eta oxala horrela izatea.

Zortzi gizonezko izango zarete oholtzan.

Bai, pena handi bat. Eta txarrena da urte dezentetan errepikatzen ari den egoera dela. 2013. urtean Erika Lagoma izan zen finalean aritu zen azken emakumea. Final aunitz pasatzen ari dira zortzi gizonezko oholtzan daudela eta emakumeen begirada, emakumeen diskurtsoa... falta da. Populazioaren %50aren ahotsa ez da islatzen Nafarroako bertsolaritzaren egunik handienean. Egia da hurbil ibili direla, baina Nafarroako oholtza handi horretan emakumeen ahotsa entzuteko premia dago.

Gorriti, 1987. Nafarroako lau txapela ditu eta hirutan aritu da Txapelketa Nagusian. Aurtengoa, Nafarroako bederatzigarren finala izango du eta txapelerako faboritoen zerrendan dago zalantzarik gabe. Etxarri Aranazko finalaurrekoan bi poto egin zituen eta ez zuen lortu saioko garailea izatea. Aspaldiko urtetan horrelako poto festa egin gabe zegoela aitortu arren, ez du uste akats horien zama duenik bizkarrean. Aldrebes, mesede egingo diotela uste du.

Finalaurrekoan bi poto egin zenituen. Bai, uste dut lau Nafarroako Txapelketa eta hiru Euskal Herriko neramatzala potorik egin gabe. Ni neu ere ezustean harrapatu ninduen, ez nintzen konturatu. Ez dator sekula ongi bi poto egitea, baina nola hartzen duzun arabera, oso ongi dator. Erakusten dizu kontzentrazio erabatekoa behar duela bertsoak, hezur-haragizkoa zarela, potoa egitea oso gauza erraza dela eta noiznahi egin dezakezula. Potoa bezala bestelako akatsak. Mesede bezala izan dadila, horrela hartu nahi dut. Bizitzan gertatzen zaizun edozein txarrek beti izaten du onetik eta asmatzen baldin baduzu on hori deskubritzen eta zureganatzen, indartuta ateratzen zara. Esperantza horretan nago.

Gaiei ertzak ateratzen ahalegin handia egiten sumatu zintugun. Gustura aritu nintzen Etxarrin, batik bat diozun horretan, begirada non jarri, bertsoa non kokatu... Gai baten aurrean mila helduleku dituzu eta batzuetan loturak eta urduritasunak beti esan duzun hori esatera eramaten zaitu, topikoetara eta askotan esan nahi ez zenukeen hori esatera ere eramaten zaitu. Niri askotan gertatu zait. Lehengoan argi nuen burua, gaiak nora eraman nahiko garbi ikusten nuen eta alderdi horretatik pozik aritu nintzen. Gero egia da puntuazioa entzun eta kolpe handia jaso nuela. Baina finalera han izan nituen sentsazio on horiekin iritsi nahi nuke eta batez ere begia erne ibili.

Emakumerik ez da izango finalean, baina gizonezko bertsolari asko ariketa sakona egiten ari zarete generoari begira.

«Txapelketa honetan kolore argiagoak erakutsi nahi ditut, kopeta argiagoa»

JULIO SOTO EZKURDIA

Garbi dago munduan gertatzen ari den iraultzarik handiena eta garrantzitsuena feminismoa dela. Orokorrean gizon bertsolariok badugu horrelako urduritasun, zalantza, kokatu ezin bat... gai honekiko. Batzuetan, lanerako eta gure burua berriz kokatzeko erabili beharrean, kontraerasorako erabili izan dugu. Bertsolaritza, mundua bezala, aro berri honetan sartu da eta oso garrantzitsua da bertsoa nola bete, bertsoa non jarri, zer esan bertso horrekin. Gizonok lan handia daukagu egiteko; lanketa feminista egin behar dugu, munduan maskulinitate berri bat sortzen ari da eta guk ere eraikuntza horren parte izan behar dugu gure diskurtsoekin eta gure praktikekin. Horrekin kontziente naiz eta zuzenean edo zeharka lantzen-lantzen ari naiz eta ari gara bertsolariak. Gero, batzuetan bat-batean, esan nahi ez duzun hori esaten bukatzen duzu hala ere.

Bertsolariak, pertsona guztiek bezala, fase desberdinak bizi ditu. Zure kasuan nabarmenak izan dira fase horiek, oso Julio desberdinak ikusi ditugu txapelketaz txapelketa. Zein Julio zara orain? Gure anaiaren galera eta gero denbora asko behar izan dut kokatzeko, osatzeko eta orban horiekin bizitzeko. Orain, nire bizitzako fase askoz argiago batean nago, gauza asko ikasi ditut, indartsuago nago... Txapelketa honetan badaukat argitasun hori erakusteko gogo, kolore argiagoak erakusteko gogo –ez du esan nahi bertso umoretsuak izan behar dutenik–, kopeta argiago erakusteko nahia... ongi nagoela eta buelta eman diodala sentituta harrapatuko nau finalak eta hori erakutsi nahi nuke.

Julioen beste azal bat. Tira, ez dakit zenbat azal ditugun. Batzuetan azalberritu nahi horretan ez gara konturatzen azal zaharrarekin

egiten dugula akaso ondoen bertsotan. Baina, bai, txapelketa honek pozik eta argi harrapatzen nau.

Azal ilunak izan dituzu eta horietan oso goian aritu zara bertsotan. Sufrimendutik errazago sortzen al da? Bai, nik hori garbi ikusi dut. Bertsotan hobekien egin dudana eguna Elizondoko finala izan da. Zergatik? Azkenean horrelako kolpeek beldurak uxatzen dizkizute, zure egoa alboratu egiten dute, burutik txorakeriak joaten zaizkizu....

Bizirik egon nahi duzu eta kantatu egin nahi duzu eta, orduan, ongi kantatzen duzu. Banekien, hala ere, denbora pasatu ahala berriz harrapatuko nindutela nitasun horrek, mamu horiek, urduritasunak... eta horiei mugak jartzen saiatzen ari naiz orduetik, ez bakarrik bertsotarako, baita eguneroko bizitzarako ere. Egia da zaila dela, bizitzan azkar ahazten baita kolperik gogorrenak ere ematen dizun lezioa. Triste da baina gizakioi asko kostatzen zaigu pozetik sortzea. Beltzetik, sufrimendutik, errazago sortzen da. Sortzaile askori gertatzen zaio. Pozetik eta lasaitasunetik sortzea erronka ederra da eta erronka horri heltzeko gogoz nago.



JOANES ILLARREGI MARZOL

«Pena emango lidake bertso eskolan landutakoa atera ahal ez izatea»

Leitza, 1999. Gaztetatik bertsolaritzan aritua Leitzako Bertso Eskolaren bueltan. 2007an hasi zen Eskolartekoetan eta hirutan izan da Nafarroako Eskolarteko txapelduna. Bestelako sariketak ere irabazi izan ditu. Bigarrenez parte hartu du Nafarroako Bertsolari Txapelketan eta lehenengoz iritsi da finalera. Lesakako finalurrekoa irabazita, horrek ematen duen txisparekin iritsiko da finalera.

Lesakako finalurrekoan saio ederra eginda irabazi zenuen finalerako txartela.

Tira, nik barrutik ez nuen hain garbi ikusi. Sufritzea egokitu zitzaidan eta kartzelara nahiko burumakur iritsi nintzen. Egia da bakoitzak barrutik bere modura ikusten duela saioa, baina kartzelara sentazio txarrekin joan nintzen. Pentsatu nuen oraindik bost bertso falta zirela, hori asko dela eta lortu nuen nire aldarteari buelta ematea. Pozik nago horregatik. Hala ere, badaude hobetzeko gauzak. Pena daukat ez dudala oraindik lortu bertso eskoletan ematen dudan maila plazan ematea. Baina horretarako da finala eta horretan saiatuko naiz, lantzen aritu naizena erakutsi nahi dut.

Illarregi anaiak izango zarete finalaren berezitasuna. Etxean eta Leitza nola bizi dute?

Egia esan ez naiz asko egon Leitza azken egunotan, Gasteizen Irakasle Eskolan ikasten ari naiz eta. Baina Leitza oso herrizalea da, herriko norbait zerbaitetan ondo dabilenean herria harro sentitzen da eta asko bultzatzen du. Nik espero dut Leitzako jendea etorriko dela finala ikustera eta, bestetik, herri mailan bertsoari behar duen bultzada emango dio herriko bi gazte, bi anaia gainera, finalean aritzea.

Etxekoak pozik daude. Ez dakit oraindik erabat sinistu dugun finalean

«Pena emango lidake hainbeste prestatu ondoren, nahi beste ez gozatzea. Baina, tira, beldurra baino gehiago nik finalean kantatzeko gogo daukat»

«Behetikan etorrita, galtzeko ezer gabe, helbururik jarri gabe, baina lorpenik baztertu gabe, anbizioarekin joango naiz. Txapelketan anbizio pixka bat behar da»

egongo garela, ez guk eta ez etxekoek. Hau arraro samarra da denontzat.

Etxetik datorkizue bertsozaletasuna?

Baietz esango nuke. Ni oroitzen naiz haurrak ginenean joaten ginela Nafarroako Txapelketako saioetara, telebistan bertso saioak ikusten genituela... gurasoak bertsozaleak dira eta hori jaso dugu etxean. Ni hasi nintzen aurrena bertso eskolan eta gustura nenbilela ikusita, anaia nire



arrimoan hasi zela esango nuke. Orain artean bidea elkarrekin egiten ari gara, txapelketa honetan hiru saiotik hirutan elkarrekin arituko gara.

Zerk ematen dizu bertigo gehien Anaitasunako finalean?

Beldur edo erreparo handiena ematen dit bertso eskolan landutakoa atera ahal ez izatea. Horrek esan nahiko du saioan ez zaudela gustura edo lotuta sentitzen zarela. Pena emango lidake hainbeste prestatu ondoren, nahi beste ez gozatzea.

Baina, tira, beldurra baino gehiago nik finalean kantatzeko gogo daukat. Nik uste izugarrizko plaza izango dela eta hor kantatzea plazer bat da.

Irabazteko asko eta galtzeko gutxi. Hortik abestea abantaila da, ezta?

Bai, bai, zalantzarik gabe. Behetikan etorrita, galtzeko ezer gabe, helbururik jarri gabe, baina lorpenik baztertu gabe, anbizioarekin joango naiz. Txapelketan anbizio pixka bat behar da, bestela ez genuke izenik emango.

XABAT ILLARREGI MARZOL

«Nahiko lasai egoten naiz, plazak ez dit beldurrik ematen»

Leitza, 2001. 8 urte zituela hasi zen Leitzako Bertso Eskolan eta geroztik hor dabil. Eskolarteko txapela bat dauka eta 2018an Berritxu saria eta 2019an Abra saria eskuratu zituen. Bere lehen Nafarroako Bertsolari Txapelketa da aurtengoa eta finaleraino igotzea lortu du, behetik hasita, eskaileraz eskailera. 17 urterekin jokatu du bere lehen finala.

Lainoan zaude?

Tira, batzuetan kokatzea kostatzen zait, finalean nagoela asimilatzen ari naiz. Baina lortuko dut, burua horretara jarriko dut eta bertsotan egitera joango naiz.

Plazan eroso dirudizu. Tenple handiarekin.

Egia esan nahiko lasai egoten naiz, plazak ez dit beldurrik ematen. Nire puntu ahula ez da urduri jartzea. Plazan gustura sentitzen naiz eta uste dut garrantzitsua dela zure buruarengan konfiantza izatea. Uste dut plazan gustura egongo naizela, ez daukat bestelako helbururik, ez dago eman beharreko hurrengo pausorik eta gozatzeri joango naiz finalera.

Dena irabazteko.

Hori da. Aurreko faseetan beti hurrengo fasera pasatzeko pausoa eman beharra zegoen, presio hori. Baina ja ez dago beste inora pasatzeko tentsiorik eta gozatzeri joango naiz. Lehen aldia izango dugu anaiak eta biok eta biok batera arituko gara. Zorutzen ari gara.

17 urte dituzu. Nola kokatzen zara batzuetan hain handiak diren gaien aurrean?

Ez dakit, oraingoz ez dut nabaritu horrelako bertigorik, baina gerta

«Nire puntu ahula ez da urduri jartzea. Plazan gustura sentitzen naiz eta uste dut garrantzitsua dela zure buruarengan konfiantza izatea»

«Beste finalista bat gehiago izan nahiko nuke, ez zazpi finalista gehi gaztetxo hori. Ahal dudana egingo dut horrela izan dadin»

daiteke besteak jantziagoak egotea gai batzuen inguruan, urtetako esperientzia izatea, heldutasuna... Nik nire armak erabiliko ditut. Nagusiki, lotsarik ez izatea eta ausart jokatzeko. Ahal dudana egitera eta gozatzeri joango naiz. Bertso eskolan bezala egiten saiatuko naiz, ausardiarekin, lasai erantzunez, bestea entzuten...

Bertigorik ematen dizu Anaitasunako plazak?



Ez. Beldurra baino sekulako gogoa pizten dit, izugarritzko plaza dela iruditzen zaidalako. Tentsioa egongo da noski, baina plaza probatzeko gogoa daukat.

Finaleko txahala izango zara. Kantatzeko oso toki ona da, ezta?

Bai. Txahala izan nahi nuke, baina txarra ez. Beste finalista bat gehiago izan nahiko nuke, ez zazpi finalista gehi gaztetxo hori. Ahal

dudana egingo dut horrela izan dadin.

Zer duzu alde eta zer kontra?

Txikitatik aritu gara bertsotan eta kezka gutxi daukat plazara atera eta bertsotan egiteko. Hori nire alde daukat. Eta nire kontra, esperientzia eta eskarmentu falta. Plazak gaina ez hartzea nahiko nuke, finalaren emozioak ez irenstea. Gozatzeko eta bertsotan egiteko plaza bat izatea nahiko nuke.

Lesaka, 1977. Baztan eta Xaretako herri eskoletako irakaslea da. Bertsozalea aspalditik izan arren, 2011n hasi zen Baztango Helduen Bertso Eskolan eta gaur egun Bortzirietako Bertso Eskolan dabil. 2013an parte hartu zuen aurrenekoz Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Finalera iritsi, laugarren postua lortu, eta Euskal Herrikorako pausoa eman zuen. Laugarren finala jokatu du gaur.

Osasun arazoekin ibili zara txapelketan. Zer moduz zaude? Gainditu dituzu?

Ez oraindik. Abuztuan bizkarreko arazoekin hasi nintzen, digestio sistemako infekzio bat ere izan dut, eta urtarrilera arte bajan egon naiz. Orain dela hilabete jakin dut hernia diskala dudala, hortaz, nahiko justu alde horretatik. Oinaze izugarria ez da, baina oinaze konstantea bai. Ez nago ehuneko ehunean eta horrek pena ematen dit ez didalako segur aski txapelketak duen hoberenaz gozatzen uzten. Saioa egiten duzu ahal duzun hobekien, baina aste osoko entrenamendua kosta egiten da, nekea sumatzen da. Azken saioan, Lesakan, bosgarren nintzen eta izugarri luze egin zitzaidan egonaldia. Sentsazio gazi-gozoa dut, aunitz disfrutatzen dudalako bidean eta aurten traba dezente izan direlako.

Ea finalean zenbatgarren tokatzen zaizun.

Hori ere bai. Saioan ez dago kartzelarik, buruz burukoan bakarrik. Horrek pixka bat arinduko dit. Finalean zerotik hasten gara denak, ahalik eta ongien egiteko nahiarekin, jakinik helburu kolektibo batzuk beteko direla: Nafarroako bertsolaritzari eta euskarari bultzada bat ematea. Euskarak hemen duen egoera kontuan izanik hitzordu garrantzitsua dela iruditzen zait, Iruñean bertan. Pertsonalki, ahalik eta ongien egin nahiko nuke, deus baztertu gabe. Faborito batzuk badaude, baina ez daitezela deskuidatu, bertzeok ere hemen gaudelako. Garrantzitsua izanen litzateke faborito horiek estutu ahal izatea, horrek erranen lukeelako finaleko maila ona dela. Helburua hori da. Ahalik eta gehien gozatu, gozarazi

«Gazteak pizgarri bat dira guretzat. Indartsu heldu dira eta aurre eta kontra egin behar zaie»

ENEKO FERNANDEZ MARITXALAR

ere bai, eta ikusiko da bertsoak non kokatzen gaituen bakoitza.

Leitzako anaiak dira saioko gazteak, baina Xabi Maia eta biak ere nahiko berriak zarete bertsotan, helduen bertso eskolan hasiak.

Elkarrekin hasi ginen Xabi eta biok Baztango Bertso Eskolan eta ezberdin bizitzen da. Joanes eta Xabat ikusten dituzu, 19 eta 17 urterekin finalean, eta ni 32 urterekin hasi nintzen bertsotan... Zortea izan dut: lau

txapelketatan parte hartu dut eta lauretan iritsi naiz finalera. Baditu alde onak eta txarrak, gauza guztiek bezala: bertze patxada bat dugu agian, beraiek duten txispa eta sasoia faltako zaigu segur aski. Dakigun hori edo ikasten joan garen hori azaltzeko gogoz gaude. Polita da. Nafarroako bertsolarien finalak behar zuen gazteen indar hori, aurpegi berriak. Pena da neskari sartu ez izana, baina Joanes eta Xabat sartzea beharrezkoa zen, nahiz hori gure kontra izaten ahal

den [irri egiten du]. Nik uste talde polita osatzen ahal dugula, ez hain gazte eta gazteen artean.

Elkarrizketa interesgarriak sortuko dira bi belaunaldien artean.


Bai. Beraiek pizgarri bat dira guretzat. Indartsu heldu dira eta aurre eta kontra egin behar zaie.

Zure bertsokerari dagokionez, zerbait landu duzu bereziki? Erronkarik jarri diozu zure buruari?

Bakarkakoan zortzi puntuko doinu berezi batean kantatu nahiko nuke. Unai Agirrek Txapelketa Nagusian atera zuen eta badu bere zailtasuna. Halako erronka bat jarri nahi diot nire buruari aitzinera noala eta garatzen ari naizela frogatzeko. Finalerdietan ez nintzen indarrarekin aurkitu abesteko eta sei puntuko bat aukeratu nuen, baina finalean, lasaiago egonik, indarra ateratzea espero dut. Lehen aipatu dut, ez da deus baztertu behar: ahalik eta indartsuen eta gogo handienarekin kantatu eta gainontzekoa ez dago gure esku. Gure bertsoek eta epaileek jarriko gaituzte bakoitza gure lekuan.

Lehenbizikoz joanen naiz Anaitasunara finala ikustera. Zer moduzko giroa izaten da?

Sekulakoa. Bitan egin dugu hemen, 2013an eta 2017an. Lehenbizikoan Korrikaren bukaera egokitu zen egun berean, eta, bigarrean, ETaren armagabetze ekitaldia Baionan. Horrek eragin zuen pixka bat. Espero dut betiko itxura ederra izango duela. Jendeak besta bat bezala hartzen du eta horrek aunitz laguntzen du. Finalerdiak hotzagoak izaten dira. Jendea egoten da, baina tentsio gehiago dago. Finala, aldiz, besta bat izaten da bai guretzat eta bai jendearentzat. Animoan nabaritzen da. Nafarroan euskararekin lotutako ekitaldi nagusietako bat da. Ederra izanen da, aurten ez dugu bertze ekitaldirik hurbilean eta bultzatu behar dugu ahal den jende guztia etortzera, denen besta bat egiteko, bertsolaritzarena, euskararena eta entzuleena.



JULEN ZELAIETA IRIARTE

«Hurrengoan ere abestuko dut. Inportantea da hori niretzat»

Bera, 1980. Haur Hezkuntza ikasia eta Xorroxin irratiko esataria. 1993an ekin zien bertsoei eta ordutik dihardu kantuan. Nafarroako eta Euskal Herriko txapelketetan abestu izan du. 2008ko Nafarroako txapelduna da eta 11. finala du gaurkoa.

Nola sentitu zara orain arte?

Lizarran hasi nintzen, eta urduri aritu nintzen prestaketa berandu hasi nuen sentsazioa nuelako. 24 bertsolarietatik sei gelditzen ziren kanpoan hasieran eta horrekin sobera konfiantza hartu nuen. Lehenengo ofizioetan, nahiz eta bertsoak igual ez ziren txarrak, baten batean trabatu eta nire buruarekin dudatan hasi nintzen. Bakarkakoan ere bi irristada izan nituen, presaka egin nituelako lanak, jada bukatu nahi nuelako. Finalerdietara ere tentsioan joan nintzen. Saio polit bat egin nahi nuen, aurtengo txapelketan ikusten nuelako gazteak indartsu etorri direla eta guk batzuei finalean lekua kendu genien bezala orain niri tokatzen zaidalako ateratzea. Beti nahi duzu itxura ona eman eta horretara joan nintzen Etxarrira. Oholtzara goititu nintzenean sufritu egin nuen, negar egiteko gogoa eta dena sentitu nuen. Lehen agurrarekin lasaitu nintzen pixka bat. Ofizioan ikusi nuen “bai, badakit bertsotan” eta kartzelara nahiko lasai joan nintzen. Gauzak ongi egin nituen sentsazioarekin bukatu nuen. Halere, Etxarrin hobeki pasatu nuen Lizarran baino!

Zure borroka gehiago da psikologikoa bertsoena baino.

Bai, bai, nire buruaren kontra. Beti hala izan da. Banekien hamalau bertso horiek nik bota beharra nituela. Hurrengo txapelketari begira helburu hori dut: lasaiago joatea.

«Nire borroka nire buruaren kontra da. Beti hala izan da. Banekien hamalau bertso horiek nik bota beharra nituela. Hurrengo txapelketari begira helburu hori dut: lasaiago joatea»

«Zortzikote polita da. Emakumeak falta dira. Etorriko dira. Ez da gure kulp! [dio irriz]. Pasatu gara eta hemen gaude. Badira txapelerako lehia-tuko direnak, bi gazte... Eurek eramango dute protagonismoa. Ni nire saioa egiteko ongi!»

Hurrengoan ere parte hartuko duzu, hortaz.

Bai, eta hori aurrerapauso bat da niretzat. Hagitz inportantea. Normalean duda egiten dut atera ala ez, merezi ote duen... Eta orain, ikusten dut jada adin bat badudala, txapelketa eta final batzuk ere bai, galtzeko ez dudala deus... Gazte batzuk sartu dira, hurrengoan oraindik gehiago sartuko dira eta uste dut finaletik kanpo gelditu ahala presioa kenduko dudala.



Finalera lasaiago etorriko zara?

Dudarik gabe. Ez dut galtzeko deus: opari bat da. Ahalik eta saiorik osoena egiteko eta niretik emateko kontzentratua etorriko naiz. Anaitasunara heldu den bertsozaleak, edo arratsalde pasa heldu denak, ongi eta gustura egotea nahi du eta saio polit horren parte izan nahi dut. Ez diot helburu gehiagorik jartzen nire buruari. Aitzinekoetan ere hala izan da...

... nahiz eta txapel bat irabazi.

Seguru nago txapelari begira jarri izan banintz zortzigarren postutik hurbilago izanen nintzela lehenengotik baino. Finalean gaizki pasatzen baduzu egiatan pasatzen duzu gaizki, eta helburua disfrutatzea da. Badakigu denon artean egin behar dugula saio ona eta nik uste badugula ardura koxkorra, azken bi finalak, batez ere Elizondokoa, nahiko onak izan zirelako.

ENEKO LAZKOZ MARTINEZ

«Txapelketan oso gutxitan lortu dut hain saio osoa egitea eta finalean horri eutsi nahi nioke»

Etxarri Aranatz, 1983. 14 urterekin herriko bertso eskolan hasi zen eta Lekunberriko eta Etxarriko helduen bertso eskolako kide da. 2004an eman zuen izena Nafarroako Txapelketan eta 2010etik final guztietan izan da. Seigarrena du. 2017an txapeldunorde izan zen eta aurrenekoz abestu zuen Euskal Herrikoan. Bera da aurtengo Nafarroako Txapelketan puntu gehien bildu dituen bertsolaria.

Nola bizi izan duzu finalera arteko bidea?

Bereziki txapelketari begira ez naiz prestatu. Sariketa batzuk tarteko, denbora gehiago daramat prestatzen Saats Karasatorrerekin, Etxarrin. Batzuetan nik sariketa bat nuelako, besteetan berak, uda aldetik nahiko jarraian aritu gara astero-astero eta hori bada nahiko prestakuntza. Baina mentalki sorpresaz bezala harrapatu nau txapelketak. Hala joan nintzen lehen saiora, lasaiegi, errespetua galdu izan banio bezala. Gero hala egin nituen aspaldi egiten ez nituen akats batzuk. Horren ondorioz pixka bat larritu ere egin nintzen saioan bertan eta nahiko haserre bueltatu nintzen etxera. Gero, buelta batzuk eman buruari, eta ustez gertatutakoaren azalpenak aurkitu ditut. Finalaurrekoan uste dut lortu nuela txapelketak eskatzen duen moduan joatea. Gainera, bertsotan akatsik ez egiteko zortea izan nuen eta saio oso ona atera zitzaidan. Txapelketan oso gutxitan lortu dut hain saio osoa egitea eta horri eutsi nahi nioke.

Aitzineko txapelketan buruz burukora iritsi izanak pisurik ematen dizu?

Gustatuko litzaidake berriz kantatzea eta ahal dudan gorena iristea, baina nahiago dut planteatu bide baten ondorio edo emaitza bezala eta ez

«Asko kostatzen zait kontzentrazioari hainbeste denboran eustea. Umea nintzenean kosta egiten zitzaidan eta orain berdin. Garrantzia ematen diot hasi eta buka bertan nagoela sentitzeari, ariketa batek despistatuta harra-patu eta ez erortzeko»

«Nahiago dut bertso bakoitza ahalik eta gusturen kantatzea, eta lortzen badut ongi sentitzea eta nire mailatik gertu ibiltzea badakit hor goian egon naitekeela»

bidea ondorio horiei begira baldintzatzea. Nahiago dut bertso bakoitza ahalik eta gusturen kantatzea, eta lortzen badut ongi sentitzea eta nire mailatik gertu ibiltzea badakit hor goian egon naitekeela.

Zein helburu dituzu txapelketan eta finalean?

Bi urtetik behin dugun aukera bat da txapelketa, bestela plaza askorik ez dut izaten, eta bada modu bat bertsoari lotuta jarraitzeko eta hobetzen



saiatzeko. Bestetik, behin izena emanda, ahal den urrutien iritsi nahi dut, baina bidea gozatuz.

Taldean bizi duzu txapelketa?

Lekunberrin aspaldi elkartzen gara kuadrillatxo bat eta txapelketa urtetan fundamentu gehiagorekin aritzen gara. Bestela Terre edo Juliorekin gutxitan topo egiten dugu. Aspaldiko lagunak gara eta Lekunberrikoak balio digu harremanari eusteko. Etxarrin Joseba Beltza, Saats Karasatorre,

Joxema Leitza... hor egon dira eta nahiz eta ni izan oholtzara doana taldean ibili izan garela beti sentitu dut. Hori ere bada motibazio bat.

Nola ikusten duzu zortzikotea?

Aurten pixka bat berritu da taldea eta gu barruan mantentzen garen bitartean hori oso ongi dago! [barrez]. Bertso maila handia dago. Lagun talde bat ere bagara eta denok jarriko dugu guretik elkarrekin gustura egoteko. Ez dut hainbeste hitz egin aspaldi... [irriz].

Elizondo, 1981. Historian lizentziatua, Baztango Udaleko langilea eta Baztango Bertso Eskolako irakaslea. Eskola sortzearekin batera hasi zen bertsoan, 2009an. Handik lau urtera txapelketara animatu zen eta 2017an finalera iritsi bakarrik ez, Euskal Herrikorako eserlekua ere lortu zuen. Bigarren aldiz kantatuko du finalean.

Errepasa dezagun txapelketako zure ibilbidea.

Lehenengo koxka taldea da: ez dut txapelketa irudikatzen ez badut talde bat ondoan. Lehenengo mugarría taldearen sentsazioa eta osaketa izaten da. Horretarako gure inguruko, kasu honetan Baztango, bertsolari eta bertsozaleak biltzen gara, ea zeinek emanen duen izena, eta ea bagaren talde moduan txapelketari aurre egiteko tresna bat. Niretzat %80a talde bat izatea da. Ez bakarrik kanturako; terapia egiten dugu, gure afaritxoak... Behin hori finkatuta, oso argi nuen izena emango nuela. 2017an tokatu zitzaidan Nafarroako finalean sartzea lehenengo aldiz eta horrek Euskal Herrikoan kantatzeko txartela ematea. Kanpotik ikusita oso pozgarria izaten ahal dena nik barrutik oso gaizki eraman nuen, batez ere Txapelketa Nagusiaren inguruko guztia. Ikaragarri sufritu nuen bai aurretik entrenatzen bai saioaren ondorengo asteetan.

Gainditu egin zintuen?

Ez nintzen kokatu, nire burua asko zigortzen nuen erranez ez nintzela gai izen handi horien ondoan kantatzeko. Estimulu handi bat bezala hartu nahi izan nuen, baina gain hartu zidan erabat. Negar pila bat egin nuen aurretik, ondoren, eta behin denbora bat pasa eta distantziatik begiratuta bai ikusten nuela nire buruari beste aukera bat zor niola. Familia giroan egiten den txapelketa hau baliatu nahi nuen nire buruarekin bakeak egiteko. Nire helburua hori zen bakar-bakarrik. Eta oso natural hartu nuen. Aurreko urteetan egiten nuen lanketa teknikoa alboratu eta beste modu bateko entrenamenduak egin nituen, librean kantatuz asko. Naturaltasunez hartu nahi nuen bertsoa, gure hasiera hartan hartzen genuen bezala, ez gehienbat txapelketa bat bezala. Eta bide hori oso arin eta ondo eraman dut.

«Naturaltasunez hartu nahi nuen bertsoa, gure hasiera hartan hartzen genuen bezala»

XABI MAIA ETXEBERRIA

Txapelketara iritsi nintzen entrenamendu karga gutxirekin, baina freskotasun handiarekin. Eta saioetan nabaritu dut hori: inoiz baino lasaiago oholtzaratu naiz. Egia da teknikoki hainbeste lanketarik egin ez izanak akats txiki batzuk egitera eraman nauela, baina saioetan oso tenple onarekin, ondokoa entzuten, erantzuten saiatzen... aritu naiz. Beste txapelketetan izan ez dudana tenple batekin atera naiz. Eta ibilbidean, saioak nola eraman diren ikusita, nire buruarekin bakean nengoen jada. Erabat pozik gelditu nintzen jakin gabe oraindik finalean sartuko nintzela. Aurretik kendu zidan hori eman zidalako txapelketak. Horregatik oso lasai. Eta behin finalean sartuta kristoren poza hartu nuen. Azken saioan ez nengoen han, urduritasun puntu bat banuelako, ez niolako inori gaizki egiterik opa nire onerako. Zurrumbilo handi bat da, antinatura bezala sentitzen dut eta ez nengoen han. Sutan jarri zitzaidan mugikorra, dena zorian mezuak, barruan nagoela, eta kristoren txutea izan zen beste aukera bat nuelako oraindik nire buruarekin kontenago gelditzeko. Gero, zer zortzikote bildu garen ikusita, nahiz eta neskari ez dagoen eta betiko arantzatxoa izango dugun hori, oso gogotsu nago.

Ikusten zaizu, bai. Zoriona transmititzen duzu.

Eten txiki bat izan nuen, burua deskantsatu nuen, eta azken bi asteotan berriro motibazio horrekin, duela bi hilabete baino hobeto nengoela sentitzen dut, eta gogoz noala finalera, batez ere kantukideak laguntzeko eta elkarren artean bertso saio on bat osatzeko. Nire helburu pertsonalak beteta daude, berdín zait zortzigarren, seigarren, bigarren... Benetan. Ez diot inongo garrantzirik ematen momentu honetan horri, baina gogotsu nago aldi berean final

on bat egiteko eta nire bertsokideei laguntzeko final on bat egiten.

Leitzako Xabat eta Joanes Illarregi anaiekin kantatzea berezia da?

Bai. Lehenengo kanporaketan bi anaiekin kantatzea tokatu zitzaidan eta niretzat hori izan zen hasierako zozketak eman zidan lehenengo pozetako bat, ikustea “hauek badatoz, eta ni eurekin nago”, eta trantsizio bide horretan parte izan naiteke. Kantuan bederatzi urte daramatzat. Ni

ere alde horretatik gaztea naiz, baina jada adin batean sartua. Polita iruditzen zait oholtza bat partekatzea hain jende gazte eta freskoarekin, beste ideia batzuekin datorrena. Ikustea, gainera, osagarriak garelá bertsoaldia aurrera eramateko orduan; zoragarria da. Ikusita nor sartu diren, euren lehen finalean ni hor egon nintzela erran dezaket, lasai egon hauek final asko egingo baitituzte. Aitona baten hitzetatik ari naizela dirudi, baina pozgarria da gazteak datozela ikustea eta kanpora begira ere mezu garrantzitsua bidaltzen ari gara: Nafarroan bertsolaritza osasuntsu dago eta badatoz kimu berriak.





Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Tartean

Kantu bat gara, edo ginen; kantu bat edo lau, edo hiru, bost, zazpi? Nork daki. Kantu bat gara baina, nor gara gu? “Gu” al gara? Edo “*nosotros*”? Edo “*nosotras*”? “*Nous*” akaso? “*We*”? Garai nahasiak bizi ditugu; gutasuna Aspirina baso bat uretan bezala urtu zaigu eta noraezean gabilta. Haurtzaindegitik kuadrilla familia bezain naturalki eta ezinbestean jaso genuenok institutu ezberdinetan nahasi eta larunbat arratsaldeetako pipa-jateetan aurpegi berriak agertzen hasi zirenean bezain begi zabalik begiratzen diegu ingurukoei, gurekiko nor diren eta, batez ere, gu haiekiko nor ote garen ezin definituz. Sorbalda zabaleko eta kotoizko ahotseko kantari brasildar bat ikusi dut Bob Dylanen abestiak gitarra espainolez jotzen Egiako lurpeko pasabidean. Jendea hara-hona dabil autobus estaziotik sartu-irtenean, maleta eskuan eta aurikularrak belarrietan. Eta aurikular bakoitzeko uhinek tinpanoetara daramatzaten abestien inguruko kalkululo soziologikoak egin ditut nire baitan. Gutasun xelebrea da nor bere belarri-zuloetan isolatuta bizi gaituen hau. Mutiko bizardun bat igaro da nire aurretik aurikularrari hizketan, herenegungo gau bilbotarraren kronika ia proustiar bat osatuz. Eta une batez bururatu zait nor ote dagoen beste aldean, nori kontatzen dion mutilak Iturribidetik Kafe Antzokirako odisea, nori kantatzen ote diogun guk; ba al dagoen inor beste aldean, entzuten al gaituen inork edo gure buruarekin bakarriketan baino ez ote garen ari, gure burua entzuteko beharrez edo, batez ere, gure isiltasunaren ikaraz, desa-

gertzeak sabelaldean sortzen digun bertigoz, esatekorik ez daukagun elkarrizketetan ere ahoa zabalarazten digun antsia beldurti horretan. Norrentzat ari garen gu, *nosotros*, *nosotras*, *nous* eta *we*, homologazio bila multinazionalen jaialdiak erakartzen eta hemen arrunta dena munduan exotiko agertzeko izenondo anglosaxoiak eransten; “mundua” esaten diogun eremu itxi eta hizkuntza eta kolore bakaneko horretan salgarri egiteko. Gure burua bes-teen belarrietan definitzeko.

Lehen kantu bat ginen eta orain hamabi emanaldi izango omen gara urtean, gure joera arautzaile honetan. Sormena ere arautu nahi hori, araua bera sorkuntza inposatu

bat dela ahaztuta, ustez naturalki, ohituraz eta inertzia sailkatzen, definitzen edo izendatzen gaituen ororen gisan. Arauak behar ditugu ordea, airea ere neurtzeko: kultura saldutako sarrerekin balioesten dugun moduan, kultura beti kulturatik kanpoko termometroetan neurtzeko daukagun obsesio horretan: euskal kultura euskara sustatzeko balio duelako iruditzen zaigu interesgarri, literatura errelato jakin batzuk zabaltzeko darabilgunean omen da baliozko. Sortzea bera, bere horretan, nahiko balio ez balitz bezala. Sailkatu egiten dugu hala ere: tabernaria edo lo egin nahi duen auzokoa, A ala B, mendia ala hondartza, zuria edo beltza. Interesgarriena bien tartean gertatzen dena ez balitz bezala. •



Lehen kantu bat ginen eta orain hamabi emanaldi izango omen gara urtean.

{ koaderno } **Amaia Nausia Pimoulier**

Sorginen memoria

Asteburu honetan historiagileak, antropologoak eta bestelako adituak deituak izan gara Iruñean antolatu den Sorgin Ehizaren Historiari buruzko I. Topaketa Feministan parte hartzera. Silvia Federici historiagile eta idazle feminista italiarra etorriko zaigu topaketotan parte hartzera. XVI. eta XVII. mendeetan Europa mailan eman zen ehiza horren biktimak kuantifikatzea zaila bada ere, historiagile batzuek eraildako 100.000 pertsona zenbatu dituzte; beste batzuek, berriz, kopuru askoz altuagoak ematen dizkigute. Irakurketa kuantitatiboak alde batera utzita, kualitatiboki emakumeen historian fenomeno honek suposatu zuen sarraskia neurtzea oraindik zailagoa izan daiteke. Eta emakumeez ari naiz jakin badakigulako sorginkeriarengatik jazarritakoen artean gehienak emakumezkoak zirela, Nafarroako kasuan %70 eta %80 bitartean. Prozesu historiko guztietan gertatzen den bezala, arrazoa konplexua da, baina esan dezakegu trantsizio urte horietan (Erdi Aroko feudalismotik estatu-nazio modernoaren eraikuntzara) inposatu nahi zen gizarte-ordena berri hartan emakumeen diziplinamendua indar zibil eta erlijiosoen zentroan kokatu zela. Zehazki, bakarrik bizi ziren emakumeak, alargunak gehienak, izan ziren ehiza honen biktimak. Hau da, emakumearen ideal kristauarekin, kastitatean eta amatasunean oinarritzen zena, apurtzen zuten emakumeak.

Ia mende oso batez, Euskal Herriko lurraldeetan auzitegi zibil eta eklesiastikoek sorginkeriarengatik milaka lagun epaitu zituzten eta, Nafarroarentzat ditugun datuen arabera, 100 bat pertsona izan ziren erailak. Ehunka biktima gehitu beharko genituzke erresumatik kanporatuak edo euren ondarearen galerarekin zigortuak izan ziren emakumeak ere zenbatuz gero. Asteburu honetako topaketak emakumeon memoria berreskuratzea du helburu nagusi, sorginkeriaren aitzakia baliatuz gogorki diziplinatuak izan ziren bikti-

men memoria berreskuratzea. Eta ez da inolaz ere lan makala, batez ere gure herrian, sorginaren irudia horren errotuta dugun gizarte honetan, non sarri ikuspuntu folklorikotik, jaiaren eta ospakizunaren abiapuntutik begiratzen diogun. Beharrezkoa da halako sufrimendua pairatu zuten emakumeei merezi duten lekua ematea, folkloreak eta jaiak askotan kentzen dion sakontasuna emanez auziari. Asteburu honetako Iruñeko topaketak horretarako abiapuntua emango digu, ikerketa taldeak martxan jarritz baina baita erakunde eta instituzioei deia luzatuz ere gai honekiko duten arduraz ohartu daitezen.

Gure aldetik, mundu akademikotik, badugu erronka polita; sorgin ehizaren ikerketa sistematikoa martxan jartzea. Gure herrian baditugu aitzindariak, Caro Baroja, Idoate, Reguera edo Usunariz, azken urteotan. Baina begirada feministak gaiak behar zuen zeharkako ikuspuntua eskaintzen digu orain. Jakin badakigu

Bakarrik bizi ziren emakumeak izan ziren sorgin ehizaren biktima nagusiak. Hau da, emakumearen ideal kristauarekin, kastitatean eta amatasunean oinarritzen zena, apurtzen zuten emakumeak

zeintzuk izan ziren biktimak, zeintzuk epaileak, datu kuantitatiboak ere mahai gainean ditugu, ehizari nork eta nola eman zion amaiera badakigu (Gustav Henningsenen ikerketei esker Salazar y Frias inkisidoreak horretan izan zuen papera ezagutzen dugu), eta jazarpenak izandako helburuaren susmoa ere badugu: gizarte ordena berriak eskatzen zuen feminitatearen idealean emakumeak doktrinatzeko, eta ideal horri aurre egiten ziotenak diziplinatzea. Lan hori guztia Euskal Herriko, Estatuko eta munduko beste ikertzaileekin elkarbanatzeko aukera emango digu topaketak; erailak eta jazarriak izan ziren emakumeen memoria berreskuratzeke lehengo urratsa besterik ez da. •

EKOZINEMALDIA

Bizigarriagoa eta justuagoa den mundu bat eraikitzeko borrokak

 **INGURUMENA /** Amagoia Mujika Telleria

Ekozinemaldiak hamahirugarren edizioa du. Martxoaren 25 eta 31 bitartean, Euskal Herrian barnako aretoetan, munduan gertatzen ari diren ingurumen injustiziak eta horien parean altxa diren borrokak kontatuko dituzte hamahiru filmek. Elkartasuna eta erresistentzia erein nahi ditu Ekozinemaldiak, mundua toki hobea bihurtzeko.

Ekozinemaldiak hamahirugarren edizioa beteko du aurten, datorren martxoaren 25ean hasi eta martxoaren 31 bitartean.

Hamahiru herritan barna banatutako egitarauan, munduan gertatzen diren injustizia eta aldrebeskeria ekologikoak eta horien pare-

an altxatutako borroka sozialak kontatzea du helburu, horretarako zinemaren lengoaia erabilita.

Zor ekologikoaren inguruan ehundutako zinema jaialdi berezia Ekologistak Martxan-ek eta Mugarik Gabeko Ingeniari-tzak elkarlanean antolatzen dute, trantsizio energetiko demokratikoaren inguruko Tra-dener proiektuaren barruan.

Hartara, Ekozinemaldia ez da ohiko zinema jaialdi bat, ez duelako helburu ekonomiko-rik eta bertan aurkeztutako proiektuek ez dutelako elkar-rren kontra lehiatzen. Norba-nakoek eta kolektiboek boron-datez antolatzen dute eta ekimenaren erronka nagusia herri desberdinen borroken berri ematea da, elkartasuna eta erresistentzia helburu ba-karrarekin bultzatzeko: biziga-rriagoa eta justuagoa den mundua eraikitzea.

Ekologistak Martxan kolekti-boko kide den Martin Mantxok agertu duenez, «ingurumena-ren inguruko beste herrietako borrokak hona ekarri nahi ditu-gu, hemengo borrokekin bat egin dezaten. Beste lekuetan egi-

ten diren ahaleginak ezagutu nahi ditugu eta horietatik ikasi».

VIDALINA MORALES EKINTZAILEA

Film batzuen kasuan egileek berek azalduko dituzte beren proiektuaren nondik norako-ak, bai Euskal Herri bueltako-ak direlako edota baita Ekozi-nemaldira gonbidatu gisa etorri direlako ere. Hori da El Salvadorreko Vidalina Morale-sen kasua, “No tenemos mie-do” filma aurkeztera etorriko baita Ekozinemaldira.

El Salvadorren metalen mea-tzaritzaren kontrako ekintzaile sonatua da Morales. Emakume talde batekin batera, gogor bo-rrokatu zuen meatzaritza en-presa handien kontra eta ingu-rumenaren eta giza eskubideen

	25 astelehena	26 asteartea	27 asteazkena	28 osteguna	29 ostirala
Ataun • 19:00 San Gregorioko Elkargunea		“Aralar, mundua leku den lurra”			
Basauri				Social Antzokia 19:30 / 22:00 (4,5€) Barbacana, la huella del lobo”	Marienea “No tenemos miedo” Vidalina Moralesekin
Bilbo • 18:00 Ingenieritza Eskola (UPV-EHU)				“No tenemos miedo” Vidalina Moralesekin	
Bilbo Bilborrock (Mesedetako kaia)	“Mouso Faso, la patria de las mujeres íntegras” (19:00)	Silvia Federici + Vidalina Morales (18:00) “No tenemos miedo”	“Aralar, mundua leku den lurra” (19:00)		
Donostia • 11:00 Politeknikoa (UPV-EHU)	“No tenemos miedo” Vidalina Moralesekin “Illegal activists”	“Tabasará” “Salvemos Seko” “Water Warriors!”	“Gente de mar y viento” “Minería una amenaza para Chiapas”		
Donostia • 19:00 Koldo Mitxelena kulturgunea	“No tenemos miedo” Vidalina Moralesekin “Illegal activists”	“Gente de mar y viento” “Water Warriors!” “Yumara”			
Gasteiz • 19:00 Zapateneo	“Water Warriors!” “Tot inclós”		“Behind India, una mirada desde los movimientos”		
Iruñea Nafarroako filmoteka			“Gente de mar y viento” “Rang Tan”	“Water Warriors!” “¿Una tecnología para el clima?” + “Bolintxu”	
Leioa • 12:00 Arte Ederretako fakultatea (UPV-EHU)		“No tenemos miedo” Vidalina Moralesekin “Water Warriors!”	“La guerra empieza aquí”, zuzendariarekin	“Euskal Herria: ezkutuko zorra” egilearekin	
Orereta • 19:30 Mikelazulo			“La cruda realidad”		“Aralar, mundua leku den lurra”
Tolosa • 19:30 Leidor zinema		“Gente de mar y viento” “Illegal activists” “Bolintxu”, “Mikroplastiko”	“No tenemos miedo” Vidalina Moralesekin “Water Warriors!”	Zinekluba 19:15 / 21:45 (4€) “Cómo cambiar el mundo”	
Zalla		Zine Antzokia “Barbacana, la huella del lobo”		“Water Warriors!” “Bolintxu, el último valle” egilearekin	

alde. Hamarkada luze batez, El Salvadorreko lurretan egin asmo zituzten meatzaritza ustiaketen kontra altxatu ziren eta herrialde osoan era horretako industriak debekatzea lortu zuten. Sekulako lorpena, Latinoamerikan eta munduan metalen meatzaritza debekatzen duen lege bakarra baita El Salvadorren lorturikoa. Lorpenak, handia izanagatik, ez du gatazka erabat itzali, meatzaritzan dabilen enpresa handiek berean segitzen baitute, lurrak ustiatzeko baimenak lortu nahian. Baina Vidalina Moralesen eta El Salvadorreko emakumeen jarduna eredugarria da zalantzarik gabe.

Ekozinemaldiaren baitan, zazpi hitzordutan egongo da Vidalina Morales: martxoaren 25ean, Donostian bi hitzordu, EHUKo Ingeniaritza Eskolan 11:00etan eta Koldo Mitxelena, 19:30ean; martxoaren 26an, Leioan, EHUko Arte Ederren Fakultatean, 12:00etan; egun horretan bertan Bilbon, 18:00etan, Bilborock aretoan—Silvia Federici feministarekin batera—; martxoaren 27an, Tolosako Leidor aretoan, 19:30ean; martxoaren 28an, Bilbon, EHUko Ingeniaritza Eskolan, 17:00etan; eta, martxoaren 29an, Basaurin, 19:00etan, Mariena Emakumeen Etxean.

“Bolintxu” eta “Aralar, mundua leku den lurra” filmen kasuan ere zuzendariak emanal-

dietara hurbilduko dira, bertaratutakoekin iritziak eta sentazioak partekatzeraz.

IRABAZITAKO BORROKAK

«Indarrean dagoen hiri eredu edo eredu kapitalista sekulako abiadan ari da zabaltzen, hemen eta mundu osoan. Eta bidean ingurumenari eta komunitateei egiten die kalte. Komunitate asko ari dira une honetan borrokan, horietako asko indigenak. Borroka horiek denak herritik sortuak dira. Aurtengo filmen artean baditugu mezu positiboak dituztenak, irabazitako borroka kontatzen dituztenak. Garrantzitsua da konturatzea ingurumenaren kontrako borroka ez dela gauza abstraktua, inoiz emaitzarik ematen ez duena. Ingurumenaren kontrako borroka batzuk irabazi egiten dira. Horiek ospatu eta ezagutzera eman behar dira», nabarmendu du Mantxok. Ekologistak Martxan-eko kidearen ustez, ingurumenaren kontzientzia zabaltzea ez da erraza. «Batetik, ezezagutza dago, informazio falta. Eta, bestetik, ingurumenaren aldeko diskurtsoa bereganatu egiten du sistema kapitalistak eta horrek nahasmena sortzen du». Ekozinemaldiak mezu positiboa zabaltzeko nahi du, borroka guztiak beharrezko eta posible direla defendatu.

El Salvadorren metalen meatzaritzaren kontrako ekintzaile sonatua da Vidalina Morales. «No tenemos miedo» filmaren bitartez kontatu du emakume talde baten borroka

«Aurtengo filmen artean baditugu mezu positiboak dituztenak, irabazitako borroka kontatzen dituztenak. Garrantzitsua da garaipen horiek ospatzea eta kontatzea»



«Gente de mar y viento». Mexiko, 2017

Alvaro Obregongo Binnizá herri zapoteka etengabeko mehatxupearan dago. 24 haize erroten eremuan, beste parke bat eraiki nahi dute.



«Uraren aldeko gudariak», Kanada, 2017

Texaseko SWN Baliabideak enpresa New Brunswick-era (Kanada) iritsi zen, gas naturala aztertze asmoz. Bertakoekin egin zuen talka.



«La cruda realidad». Euskal Herria, 2016

Petrolioaren neurrik gabe-ko ustiaketak eta baliabide estrategikoen agortzeak ekarriko dituzten arazoak mahai gainean jartzen ditu.



«Aralar, mundua leku den lurra». Euskal Herria, 2018

Aralarko ondare natural eta kulturalaren lehi izateaz haratago, hausnarketa eta gogetarako bide ematen duen pelikula da.




«TABASARÁ», Panama 2018

Panamako Ngäbe-Bugle zonaldean, 2016an eraikitako Barro Blanco proiektu hidroelektrikoaren mehatxuei aurre egin diete bertakoek.



«Ekintzaile ilegalak». Norvegia, 2017

Nordic Mining enpresak 250 milioi meatze hondakin tona Fårde fiordoan botatzeko asmoa du, eta haren planak gelditzen saiatu dira.



«No tenemos miedo». El Salvador, 2018

Dora, Marcelo eta Ramiro erail egin zituzten meatzari-tzarik gabeko lurralde bat defendatzeagatik. Komunitatea borrokan ari da.



«Bolintxu, el ultimo valle». Euskal Herria, 2018

Supersur Bilboko Hego Metropoliko errepidea hedatzeak arazo larriak eragingo ditu, bai ekonomikoak eta baita ingurumenean ere.



«Save Seko, Salvemos Seko». Indonesia, 2017

Sekoko herriak zentral hidroelektriko bati aurre egiten dio, Seko Power Prima, haren ibai desbideratuko duena. Jendea mobilizatu egin da.

Jauntxoaren ahulgunea

Koldo Sagasti

Astebete pasa da Jon Darponek dimititzera behartuta ikusi zuela bere burua, eta oraindik galdezka ibiliko da, zerk egin ote zuen kale hutsezina zirudien sistema bertan behera eror zedin. Bera eta baldintzarik gabeko babesa eman dioten agintari, alderdikide eta alderdiko kazetariak; ulertu ezinik ibiliko dira. Izan ere, hamarkadetan erakundeak euren nahierara kudeatu dituzten jauntxoek erakutsi dute ez dakitela porrota kudeatzen. Hasieratik mundu guztiak zekiena onartzea zeukaten; alegia, Osakidetzan mediku espezialisten plazen banaketa lan eskaintza publikotik aparteko sis-

tema baten bidez egiten dela; lanpostuak banatzeko irizpide subjektiboa mesede kate bat dela; lagunak, alderdikideak edo menpeko leialak saritzeko bidea... baina ez, hasieratik nahiago izan zuten dena ukatu; gero salatariak gutxiesten saiatu ziren; jarraian, inongo erantzukizunik egotzi gabe, lan eskaintza publikorako azterketak errepikatzea proposatu zuten; geroago menpeko kate maila batzuen burua eskaini zuten... baina alferrik, azkenean ebidentzia nagusitu egin da.

Ustezko kudeatzaile apartak ulertu ezinik dabilta zein izan ote den zirrikiturik gabekoa zirudien mesede-sistemaren

ahulgunea; eta horixe izan da, hain zuzen ere, euren hutsegitea: harrokeria. Ez dute kontuan izan dena lotuta baino lotuago dagoela pentsatzen zutenean giza faktoreak hankaz gora jar ziezaiekeela txiringittoa. Euren harrokeriak itsututa pentsatu dute mundu guztia denbora guztian kontrolatu zezaketela; baina batzuetan arima libre bat sortzen da (kasu honetan hiru, Arrasateko ospitaleko anestesistak), dena delakoagatik, interes pertsonalaren aurrean irizpide etikoak lehenesten dituen, komunaren onura hobesten duena, eta erregea biluzik dagoela esatera ausartzen dena. •

Ile batzuen baitan

Itzea Urkizu
Arsuaga

Zabaldu zutenetik, behin baino ez nintzen hemen etzan. Kiroldegiko spa gunea da, saunaren eta hidromasajearen arteko atsedena lekuak; “plo-plo” deitzen diogu guk. Ostirala da, zinez aste motela izan da eta, kirol saio baten ondoren merezi dut, hamaka horietako batean etzanda munduari begiratzea.

Belaun gainetatik ikusten dut igerilekuak leihotik erraldoia; hantxe ari da jendea, jo eta su, astea norbere buruarekin gustura amaitzeko ustez egin beharreko lanak biribiltzen. Baina hanketara itzuli zait begirada. Depilatu gabe nago, bai; bainujantziaekin, hamaka batean etzanda, lasai. 12 urte atzera eginda, segur aski, ezingo nukeen egoera hori bera gorpuztu. Ile ba-

tzuen baitakoa ere izan daiteke jazarpena. Pentsatu dut ahalduz txiki bat dela, eta enegarrenez eskerrak eman dizkiet astorrei, behinola lerratu baitziren, nire bizitzaren erlojurik eta termometrorik onena feminismoa izango zela erabaki nezan. Garuna Martxoaren 8ra joan zait, ezinbestean: “Morea. Ahizpatasuna. Negarra. Poza eta nekea. Mugarria. Ahaztezina eta indargarria. Politikoa”. Eta hitz horretan etendut pentsamendua, aurreko guztiak azaltzen dituelako, eta bere baitan hartzen.

Pentsatu dut emakume askok ez dutela hamaka honetan etzanda egoteko aukerarik izango, ez ostiraletan, ez inoiz. Seme-alaben bila joan direlako, gaixorik dagoen osaba zaintzea tokatu zaielako, edo kirol-

degiko sarrera ordaintzea luxua zaielako. Aisiarako tartetxo bat hartzeak iluntzean jipoi bat ekar liezaiekeelako. Edo laburregiak direlako interna lanaren atsedendia, igerilekuekin pentsatzen hasteko.

Berriro belaun-buruetara jo eta pentsatu dut Martxoaren 8a bezalako egunek eta hara iristeko bideek balio behar digutela gure gorputzen askatasuna aldarrikatu eta askatze horietara iristeko; baina ez horretarako bakarrik. Bigarren greba feministaren arrakastak eta haren mezu argiak ezin gaitzakete beste ezertara eramanez: hanteko ileak kentzea arau bilakatu duen sistema eraitsi eta gutako bakoitzaren bizitzaren beharrak eraikitza. Bizitza Martxoaren 8 eternal bilakatzera. •



EXPRAI

iRRITZIA:

ESPAINIAKO
EPAILEEK
ALTSASUKO
KOLOREA ZEIN DEN
ERABAKITZEN
DUTEN BITARTEAN,
HORIAK BALIO
BEHARKO DU.



EXPRAI
2019



> Mexiko prest, Korrikaren zain



NAIZ+

Munduko txoko askotara hel-tzen dira Korrikaren pausoak. Mexikon adibidez, Euskal Herrian bezala, bi urtetik behin hartzen dute euskararen aldeko lekukoa, eta NAIZ+ atarian ikusgai dagoen bideoak era-



kusten duenez, aurtengo edizioarako dena prest dute. Mexikoko Euskal Etxea 21. Korrikaren ediziorako prestatzen ari da. Etxepare Institutuari esker Mexikon euskara ikasten ari direnak antolaketa

lanetan murgilduta daude. Han bizi eta euskararekin harremana duten herritar guztiak deitu nahi dituzte lasterketara. Aurreko edizioetako Korrikaren irudiak ikus daitezke sare sozialen bidez zabaldu-tako bideoan. Euskal Herrian apirilaren 4an abiatuko da Korrika, Garestetik. 11 egunez Euskal Herria alderik alde eta arineketan igar-o ostean, Gasteizen amaituko da. Gau eta egun gelditu gabe, bi mila kilometro baino gehiago egingo dituzte parte hartu-ko duten herritarrek. Abiapun-tutik helmugara eskuz esku bidaia-tuko dute lekukoak eta barruan gordeko duen me-zuak. Aurtun “Klika” izango du le-lo; izan ere, «Klika egitea au-ker bat hartzea da, euskara-ren aukera, hautua egitea», nabarmendu zuten antola-tzaileek Korrikaren aurkezpe-nean. Era berean, Jose Luis Al-varez Enparantza Txillardeg-i hizkuntzalari, idazle eta poli-tikari zendua omenduko du kilometro bakoitzean Korrika-ren edizio honek.



> Alderdien ilegalizazioa kontu zaharra da

Vox-ek alderdi independentis-tak legez kanpo uzteko asmoa erakutsi ondoren, Joseba Per-machek gogorarazi du Twitte-rrin ate hori duela bi hamarka-da baino gehiago zabaldu zutela Euskal Herrian. «Ni Bata-sunako militantea izan nintzen. 2002an, Alderdien Legea onar-tu ondoren, legez kanpo utzi zuten. Zuzendaritzako kideok



kartzelara sartu gintuzten 2007an. Epai-ke-tako frogak testu politikoak eta bilera edo ekitaldi politikoetara joatea izan ziren», dio asteazkenerako 2.000tik go-ra aldiz partekatutako txioan. “Público” egunkariaren albis-te batez ari zen Permach. Vox-eko hautagai batek zenbait al-derdi debekatzeko proposatzen du bertan, haien ideologiagatik.



> «Zu izatearen zortea»

Ostegunean Downen Sindromearen Munduko Eguna izan zen, desgaitasunetik aurreiritzirik gabeko gizartea lortze aldera. Egun hori tarteko, bideo batek mezu positibo bat helarazi nahi dio gizarteari, Down sindromearekin lotuta indarrean dauden estereotipoen eta aurreiritzien aurka borrokatzeko.

Iragarki horrek 30 segundo ko iraupena du, eta 4 urteko



neskato batek bere neba deskribatzen du, Downen sindromea duena. «Munduko nebarik onena» eta «hobeezina» dela dio neskatoak, sekulako samurtasunez. Hala ere, umek jakin badaki bere neba onartzen ez duen jendea ere badela.

“Zu izatearen zortea” bideo kanpainako iragarkiak 175.000 bisitatik gora izan ditu Youtuben, joan den hilak 11z gero.

> Elaxar Lersundiren gutuna Osasun sailburuari

Ekai Lersundi gazte ondarroarrek bere buruaz beste egin zuen iaz, bere identitatea aurkitzeko borroka luze baten ostean. Haren aita Elaxarrek Gurutzetako Ospitaleko Genero Unitatea ezabatzeko eskatu du Facebooken idatzitako gutun baten bidez. Gutunean Lakua-ko Gobernu-ko Osasun sailburu Nekane Murgari mintzo zaio, Jon Darponen dimisioa dela-eta kargua hartu berritan.

Halaber, transexual gazteak hurbiltasunagatik dagozkien



anbulatorioetan artatu eta ondoren dagokion endokrinorengana bidera ditzatela eskatzen du gutunak, hala gazte transexual guztiak Gurutzetako Ospitaleraino eramatea saihestuz, orain artean bezala. «Bidaio familia guztiek aurre egiterik ez dituzten denbora galera eta gastuak dakartzate», dio gutunean.

Lersundiren azken eskaera gazte transexualek psikologo eta psikiatrerengana jo behar ez izatea da.



> Herri hezitzaileen jardunaldia antolatu du OinHerrik

Ikoitz Arresek bere blogean dioenez, OinHerrik antolatuta herri hezitzaileen topaketak izango dira apirilaren 6an, Donostian. 09:30etatik 13:30etara izango da hitzordua, EHUn.

2012an abiatu zen herri hezitzaileen ibilbidea, eta, kideek adierazi dutenaren arabera, «une egokia da oraingoa egin-



dakoaz hausnartzeko, eta, batez ere, aurrera begirako ildo nagusiak erabakitzeko».

Herri hezitzaileen filosofia ardatz, Euskal Herri osoko hezikuntzako, euskararen arloko eta aisialdiko hamalau eragilek bat egin dute OinHerri elkartearen sortzeko, oinarrizko zazpi balio lantzeko, eta, horrela, jendartea hobetzeko.



Jesus Oleagarena, Anboto tabernaren lehenengo arduraduna. GAUR8

infraganti ANBOTO TABERNA

Betiko taberna. Hala izan da beti eta hala jarraitu zuen duela 40 urte, mungiar batek Anboto Oleagarena izenarekin berriro zabaldu zuenean. Jesus, Joxepe eta Iñakik bete dituzten hiru etapen ondoren, Karlosek gasteiztar eta kanpoko askoren bilgune horren laugarren etapari ekiteko prest dago, betikoa eta berrikuntza uztartuz.

Egia zen zurrumuruak zioena. Anboto itxi dute, 40 urte bete berrian. Egia, baina ez guztiz. Iñakik utzi egin du, bertan 27 urtean emanda, baina laster zabalduko dute Aiztogile kaleko

eta Gasteiz osoko tabernarik ospetsuenetakoa. Joan den igande arratsean Lobo & Carmine bikotearen abes- tiek alaitu zuten jantoki nagusia, dantzaleku bihurtuta. Astearte eguerdian, berriz, Iñakik ardo eta pintxo batzuk eskaini zizkien bere bezeroei agur

esateko. Han izan zen GAUR8 kuxkuxean eta, bide batez, tabernaren historiaren peskizan.

Jesus Oleaga taberna horren lehenengo ugazabarekin hitz egin dugu. Izan ere, 1978. urtearen amaieran zabaldu zuen Anboto, aspaldi luzetik X taberna izana zena.

OLEAGARENA

Ondo abesten duen jendea mi- resten du Jesusek. Bera ere gaz- tetan abesbatza batean tenore izan zen, baina benetako afi- zioa sukaldea zuen. Afizioa eta tradizioa, bere familiak Bilboko Anboto jatetxea zuenez gero. Baina Jesus ez zen Gasteizera Bilbotik ez Mungia bere jaiote- rritik iritsi, Briviescatik baizik. Han jatetxe bat zuen, arrakasta handia zuena, gainera, baina ume bi zituzten eta nagusiak urte bi zituela, Esther emazteak eta berak Euskal Herrira itzul- tzea erabaki zuten, haurrak ikastolara joan zitezen. Hura izan zen arrazoi nagusi eta ba- karra. Gaur egun sobera ezagu- nak dira orduko ume haiek, Maider zinemagilea eta Asier bateria jotzaile aparta.

«Taberna txiker bat hartu nahi genuen, Bilbon ahal ba- zen», kontatu du Jesusek. Baina ez zen posible izan eta, Gastei- zen ere ikastolak bazirela pen- tsatuta, haraxe jo zuten. Taber- nari Bilboko familiarenaren izen bera jartzea pentsatu zu- ten; hala ere, Gasteizen bazen Anboto izeneko beste taberna bat. Beraz, Anboto Oleagarena jarri zioten. Tabernara sartu eta berehala ageri zen kartel bat: «Etxe honetara sartzen dena, bere etxean dago». Barran, pin- txoak, pintxo ugari eta goxoak, batzuk ezohikoak. Ez zen oso ohikoa, halaber, orduko Gastei- zen euskaraz entzutea ez kale- an ez tabernetan, eta Jesusekin Mungiako euskara dotorea en- tzuteko aukera zegoen.

Sukalde tradizionala egiten zuen, baina betiere gauza be- rriei leku emanez. Dioenez, in- portanteena elementu berriak «gure erara prestatzea» da. On- do gogoan du behin, hainbat sukaldariren bilera batean, Su- bijanak esan zion eta bera guz- tiz bat datorren zerbait: «Bago- az hor zehar begiak estalita eta zenbait plater dastatuta esan dezakezu 'Euskal Herrian na- go'». Hori, Jesusek dioenez, nor- tasuna da. Eta zalantzak ditu hori galtzen ez ote doan. Azal- du egin du: «Ados nago beste herrialde batzuetatik datozen elementu berriak gure sukal- dea apaintzearekin, baina gure teknika galdu barik. Gauza ba- tzuk ekintza multikultural gisa egin daitezke, baina funtsezkoa geure nortasunari eustea da».

1985ean lokal handiago bat hartu eta Oleaga jatetxea zabal- du zuen, Adriano VI. kalean. Ur- te biren buruan barra ere zabal- du zuten, eta hango pintxoek ere sona hartuko zuten beran- du gabe. Hainbat sari irabazita dago Jesus.

ERRENAZIMENTUKO GIZONA

Jesusek beste bide bat hartu zuen, baina Anbotok zabalik ja- rraitu zuen. Hurrengo etapak beste zazpi urte iraun zituen, Joxepe Ricoren ardurapean. Jo- xepe 1998an hil zen, 46 beste- rik ez zituela. Haren anaia Xabi- ri galdetu diogu Joxeperen berri. Xabi ere ezagun samarra da Gasteizen, bertako lehenbi- ziko bertsolarietakoa izanda. Aspaldi ez du ez txapelketetan parte hartzen ez plazetan kan- tatzen, baina bai noizbehinka lagun artean.

Lehenik, Joxepe ikasle kaska- rra izan zela dio. Ez zuela goi batxilergoa bukatu. Hala ere, Leonardo da Vincirekin aldera- tu du jarraian, oso trebea bai- tzen egiten zuen denean: ma- rrazketan, margolaritzan,



Anbotoko azken langileak. Erdian, Iñaki eta Inma, nagusiak. GAUR8

musikan... eta sukaldaritzan. Beste anaia bat, Santi, eta Donostiako lehengusu bi ere egon ziren garai batean tabernan berarekin.

Beste oroitzapen asko kontatu dizkigu Xabik bere anaiaz; esate baterako, 17 urte zituela, taberna bateko komunean pintada bat egin zueneko. Tabernako nagusiak salatu egin zuen eta Poliziak komisariara eraman. Han gogotik jipoitu zuten eta ondoren zenbait egunez kartzelatu. Ama bisitan joan ziztzaionean, Joxepe ez zuela ezagutzen gogoratu du Xabik.

27 URTEKO ETAPA

1992an utzi zuten Ricotarrek Anboto, eta Iñaki Lorenzok hartu zuen berehala. Berriro ere gasteiztartutako bizkaitar batek. Iñaki Basauritik joan baitzen Gasteizera, umetan. Athleticzalea zen orduan eta hala da oraindik ere, amorratua. Taber-

nan ere nabari da, bere taldearen ikurra hormak Alavesekoarekin partekatu beharrean badago ere, Asier semearen zaletasuna aintzat hartuta.

Anboton hasi zenerako, Iñakik bazuen eskarmentua ostalaritzan. Gaztetan, Lanbide Heziketa amaitu eta zenbait enpresatan lan egin ondoren, zenbait tabernatan lan egin zuen zerbitzari gisa. 1984an, baina, Euskal Herrian beste asko lez, atxilotu eta bost urte emango zituen Espainiako kartzeletan. Irten zenean, ostalaritzan jarraitu zuen, baina luze gabe bere kabuz hasi zen. Urte gogorrak izan zituen haiek.

Anboto Oleagarenara sartu eta berehala ageritzen kartel bat: «Etxe honetara sartzen dena, bere etxean dago». Barran, pintxoak, pintxo ugari eta goxoak, batzuk ezohikoak

Iñakik ere Jesusen ildotik jarraitu duela esan liteke. Hori bai, haren patata tortillek ospe merezia dute Gasteizen eta Gasteiztik kanpo. 27 urteren ostean, atsedeen hartzeko garaia du

Aiztogile kaleko Alisas tabernan Isabel bere amak prestatzen zituen dozenaka ogitarteko saltzen zituen egunero, harik eta Anboto alokairuan hartzeko aukera izan zuen arte.

Ondorengo etapa ere ez zuen

s a m u r r a izango, baina gogotik lan eginda eta Inma neskalaguna alboan, aurrera ateraz.

Duela lau urte taberna berriztatu eta jantokia zabaltu egin zuen; hartara, ia negozio

familiarra izaten hasi zena nabarmen handitu zen.

Iñakik ere Jesusen ildotik jarraitu duela esan liteke. Hori bai, haren patata tortillek ospe

merezia dute Gasteizen eta Gasteiztik kanpo. Orain, Anboton 27 urte eman ondoren, atsedeen hartzeko edo gutxienez bizimodu lasaiagoa izateko garaia duela dio.

SORGIN ARTETIK MARIREN ALTZORA

Anboto zabaltu zutenean jaio zen Karlos Sobron gasteiztarra, eta 40 urte bete berritan, adin bereko jatetxea hartu du. Orain arte kale bereko Erdizka tabernaren ardura izan du. Kalitate-prezio erlazio onaren ospea hartu du taberna horrek urte bakan batzuetan, Karlosen eskutik. Dioenez, ordea, «Erdizka mini bat da, 120an jarri dudana, eta Anboto ferrari bat!».

Izena aldatzea bururatu ziztzaion, baina berehala pentsatu zuen Anboto ez dela edozein mendi. Bera Toloñoren magalean bizi da, Bastidan, bere neskalagun Bero eta alabatxoarekin. Berok Erdizkan ezagutu zuen Karlos, oso gustuko baitzuen bertako janaria, «begetarianoa izanda ere», dio barrez.

Karlos duela 22 urte hasi zen ostalaritzan. Anboton lehengolari eutsiko dio, baina berrikuntzarako tarte ere izango da. As-tean zehar menu herritarrak emango ditu, eta asteburuetan bereziak. Gauean, berriz, mokadutxoak, guztia ere tokiko eta kalitatezko produktuekin. Barran ez du gauza gehiegi aldatuko, ez Aitor zerbitzaria eta tortillak behinik behin. Dekorzioa, ordea, aldatuko egingo du, motibo mitologikoekin, tabernari izena eman dion mendiarekin lotuta, nola ez ba. Hartara, duela 22 urte sorgin artean hasi eta aurrerantzean Mariren altzoan jarraituko du.

Anboto, askotariko jendearen bilgune, hara sartzen dena bere etxean egoteko moduan segitzeko prest. •

Xabier Izaga Gonzalez



Amaia Urrejola

Sexologoa eta psikologoa Euskal Herriko Sexu Heziketa Eskolan

Greba feministaren inguruan hausnartzen

2019ko Martxoaren 8ko grebarekin, mugimendu feministaren historian pasarte garrantzitsu bat idatzi dugu. Partaidetza globala, antolatua eta harrigarria izan da. Azken batean, gaur egun eta mundu mailan, mugimendu sozial eta politiko kopurutsuena da feminismoa. Horrekin batera, hedabideen jarraipena eta oihartzuna ere deigarriak izan dira, nahiz eta mugimendua iraultzailea eta erradikala izan. Izan ere, azken urteetan mugimendu feministak egin duen errealitatearen diagnostika oso konplexua izan da; arazoen muinera iritsi da eta auto-kritika egin du. Ondorioz, askotariko aldarrikapen eta soluzioak bildu, gizarteko esparru guztietara zuzendu eta gizarte eredu alternatibo bat planteatu du.

Aurtengo greba feministan, emakumeok askotariko zapalkuntzak sufritzen ditugula ikusarazteko, emakumeen askotariko identitateak azpimarratu dira (emakumeak, transak eta *bollerak*). Hau da, emakumeok diskriminazioa pairatzen dugula ez bakarrik emakumeak izateagatik, baizik eta beste arrazoi batzuegatik ere: sexu orientazioagatik, sexu identitateagatik, azal koloreagatik, erlijioagatik, kulturagatik edo desgaitasun egoera batean egoteagatik. Diskriminazio mota desberdinak gurutzatzen direnean zapalkuntza bikoitza baino espezifikoak sufritzen dugulako. Aipatzen ez dena, hutsaren hurrena. Laburtuz, mahai gainean jarri da mugimenduaren barruan emakumeen artean eman den zapalkuntza. Feminismo beltzek edo dekolonialek salatu bezala, mugimendu feminista aberasturiko herrialdeetako eta erdi eta goi mailetako klase sozialetako emakume zurien borroka ez bihurtzeko, zelatan egon be-



Pasa den Martxoaren 8an Bilbon jasotako unea.

Luis JAUREGIALTZO | FOKU

har dugu. Horrekin batera, patriarkatuaren aliatu nagusiak nortzuk diren seinatatu dugu: kapitalismoa, LGTBifobia, kolonialismoa eta arrazakeria. Eta horien aurrean, alternatibak eskaini ditugu bizitzak eta zaintza mota oro erdigunean jarritik. Zaintzarik gabe bizitza ezinezkoa baita, autozaintza, ingurukoaren zaintza eta ingurumenaren zaintza biziraupenerako funtsezkoak baitira. Beraz, sexu aniztasuna, kulturartekotasuna eta ekologismoa balore gisa aldarrikatu ditugu. Funtsean, mobilizazioa izugarri arrakastatsua izan da, mugimenduaren sendotasunetako bat diziplinartekoa izatea baita.


Hala ere, aurtengo grebak, mugimenduaren ahuleziak ere agerian utzi ditu. Alde batetik, etsaiak oso abstraktua izaten jarraitzen du; heteropatriarkatu kapitalista, hain zu-

zen. Bestetik, gizonak ez dute argi zein den beraien papera. Protagonismoari uko egin eta bigarren planoan borrokatzea beraiei barne erabakia izan behar da, ez kanpotik datorren inposizioa. Horretarako, antolatu eta barne formakuntza egin beharra dute sexuen arteko guda prebenitzeko helburuarekin. Eta bukatzeko, diskurtso feminista, askoren ulermen mailatik eta errealitate sozial, politiko eta ideologikotik urruntzen ari da.

Efigenio Amezua sexologo bikainak idatzi zuen bezala, mugimendu feministari zor diogu sexologiaren jaiotza zientzia gisa. Emakumeak pertsona sexudunak direla aitortzea sexuak ikertzen hasteko lehen pausua izan zen. Hortaz, sexologia ere zorretan dago. Hots, sexuen arteko segregazio, diskriminazio eta guden aurrean, mugimendu feministaren barruan, sexuen arteko ezagutza, onarpena eta elkarbizitza sinergikoa bultzatzea dagokio. •

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



JOSE MARIA UNSAIN BILDUMA

DUELA MENDEBETEKO PASAIAKO GALDATEGIA

1888an Fundiciones Molinao Lasartetik Pasaiara lekualdatu zen, Pasaiako ontziolek xaflak eta ontzietarako burdinazko piezak egiteko galdategi bat behar zutela eta. Garai hartan hiru tona burdin galdatzen zituzten eguneko. 1890etik aurrera Fermin Lasala Colladok eta Brunet bankuak hartu zuten enpresaren ardura. Arestian esandakoaz gainera, tximiniak, piezak lehortzeko labeak eta torlojuak ere egiten hasi ziren, baita Donostiako Zubietako auzoko zein Bulebarreko farolak eta Kontxako baranda ezaguna ere, azken hori Juan Rafael Alday udal arkitektoak diseinatu. I. Mundu Gerraren amaierarekin batera enpresaren gainbehera iritsi zen, eta 1918an Javier Luzuriaga oiartzuarrari saldu zioten. Lehenago ere Luzuriagak beste galdategi baten ardura izan zuen, Donostiako Abuztuaren 31 kalean, XIX. mende amaieran Ategorrietara eraman zuena. 1924an enpresak Javier Luzuriaga e Hijo izena hartu zuen. Artikulua ilustratzen duen irudia "Fundiciones Luzuriaga. Pasajes" izeneko album batekoa da, eta joan den mendeko 20ko hamarkadan egin da. Egilea ezezaguna da.

*Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua*



GAUR8 Larunbatero **GARA**rekin

